



ttipi-ttapa

2011ko azaroaren 10a | XXXI. urtea | 554. zenbakia

www.ttipi.net



Juan Carlos
PIKABEA

→ 3

Udazkeneko Feriak

Doneztebe-Lesaka → 11/18

BERA → 19

Gerra bunkerretan barna
mendi itzuli gidatuak

OSPAKIZUNAK → 26/33

San Martinak Aurtitzen
eta Aranon

LEITZA → 35

Helduen bertso eskolaren
10. urteurreneko festa

SENPERE → 42

Berinak II festibala
martxan da

Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitza, Malerreka eta Sarako ehunka gazte futbola, eskubaloia, saskibaloia, errugbia, areto-futbola eta sokatiran ari dira jokatzeko berri honetan. Argazkian Donezteben estreinatu berria den futbol zelaian ageri dira. Abenduaren 8an egingen dute zelai berriaren inaugurazioa.



ERREPORTAJEA → 4-5

Azaroaren 20ko hauteskundeetan berriro gabe geldituko dira Legasa, Narbarte eta Oieregiko kontzejuak.

MALERREKA → 29

Menuetan euskarak presentzia egokia izan dezan *Euskaraz jan nahi dut* kanpaina abiatu du Euskara Batzordeak

GOIZUETA → 32

Gazte Asanbladaren XX. urteurrena ospatzeko egun osoko festa antolatu da larunbaterako

ZOKKETAK → 30



Txartela egiteko
deitu **948 63 54 58**
telefonora



KIROL GEHIGARRIA → 46-69

1.200 jokalarri baino gehiagok hasi dute denboraldi berria taldekako kiroletan



Ordoki Industrialdea | ARIZKUN
Tel. 948 453 259 | Fax. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com
www.betikopvc.com

Leihoetan merkatuko isolamendu termiko eta akustiko hoberena



Kontraleihoetan modelo ezberdinak lantzen ditugu



betiko rekin lan egitearen abantailak:

- 2.200m²-ko instalazioak, Baztan-Bidasoako fabrikanterik haundiena
- Kalitate-Prezio hoberenak
- 15 urtetako esperientzia leihoen munduan
- Makinaria aurreratuenak

ETORRI GURE INSTALAZIOAK IKUSTERA!

Juan Carlos Pikabea margolari lesakarrak 47 urte ditu eta 14-15 urte zituenetik pintzela eskuetan darabil. «Juan Ignacio Larramendik margolaritza klaseak ematen zituen eskola

orduetatik kanpo eta berekin hasi nintzen, margoketarako eskua nuela erraten zidan eta berekin hasi nintzen lantzen». Hogei urte egin arte berekin aritu zen astean ordubetez

eta oinarriak eta afizioa orduan hartu zuen. Geroztik, bere kabuz aritu da. Azaroaren 20an, bere borts margolan Pariseko Grand Palais aretoan zintzilikatuko ditu.

Juan Carlos PIKABEA | Lesakako margolaria

«Kanpora ateratzea pausu handia da bertan errekonozitua izateko ere»

A. AROTZENA | LESAKA

Zertan aldatu da zure margoketa hasi zinetik gaur egun arte?

Teknikoki nere bidea jorratu dut eta orain dela 30 urteko margoekin konparatuz, nortasuna, margotzeko formak, argia... gauza aunitz aldatu dira. Oraingoak hagitzez argitsuagoak dira, baina egoera animikoaren arabera ere izaten dira aldaketak.

Urte hauetan hainbat erakusketa egin dituzu. Bakarren batekin geldituko zinateke?

Jakan, Zaragozan, Madrilén eta Iruñeko Planetarioan bi aldiz... Denek izan dute bere garrantzia, erronka horiek ematen dutelako lanerako bultzada, hurrengo emaitzaren bila joateko. Erakusketen bidez jende gehiagorengana ailegatzen zara. Iruñeko Zitudadelan egin nuen erakusketan 2.500 pertsona pasatu ziren, Donostian 2.000 baino gehiago hamaborts eguez. Hori herri batean lortzea ezinezkoa da.

Udaro zure etxean ere erakusketa zabaltzen duzu. Jende aunitz hurbiltzen da?

Normalean herriko eta inguruetakojendea, nere obra ezagutzen duena edo komunikabideetan zerbait somatu duena etortzen da, turistak baino gehiago. Agian herrian izanez gero aretoa



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Borts margolan eramanen ditu Pikabeak Pariseko Grand Palaiseko erakusketara.

jende gehiago hurbilduko zen, baina etxe partikular batean denez, errepato gehiago ematen dio.

Inguruko jendeak ezagutzen du zure obra edo zaila da norbere herrian profeta izatea?

Kontuan hartu behar da Lesakako jendeak erositako 54 koadro baditudala salduak, bada zerbait. Iruñean erakusketa zabaltzen badut, han bizi diren lesakar guztiak hurbiltzen dira. Heldu den urterako Gasteizen, Lizarran eta Irunen hi-

EGUNEAN 9-10 ORDU

«Nik egunean bederatzihamar bat ordu ematen ditut lanean. Oihal handi bateko margolanak 200 bat orduko lana eskatzen du, baina ez naiz inoiz erabat koadro bakarrarekin aritzen, hiruzpalaurekin baizik. Batean igual arbolak margotzen ditut eta lehortzen uzten dudana bitartean bertzean aritzen naiz., hostoak edo formak egiten...»

tzartuak ditut erakusketak, hurrengoan agian Bilbon... Garrantzitsua da mugitzea eta ni Euskal Herri osoan ibilia naiz. **Gaur egun posible da pinturaz edo arteaz bizitzea?**

Nik 14-15 urte baditut pinturaz bizitzen, posible posible da. Beti bizikatu da jendea arteaz, zaila da, mugitu egin behar duzu eta margotzen duzun mailak ematen dizu aukera saltzeko, erakusketak egiteko... erakusketak jende gehiago ezagutzeko aukera ematen

dizu, eta dena batera datorren katea da.

Eta orain Pariseran... Hori bertze urrats bat izanen da zure ibilbidetan?

Erronka garrantzitsua da, Pariseko Grand Palaiseko Sallon des Indépendants areto hau garai batean inpresionistek bere obra ezagutzera eman zuten lekua da. Kanpora ateratzea pausu garrantzitsua da bertan errekonozitua izateko ere. 5 koadro eraman ditut, 3 formatu handiak eta 2 tiki. Ikusi behar zer erantzun duen! Egin ditudan erakusketa guztiek ate berriak ireki dizkirate eta pentsatzen dut Parisen ere, hainbertze jende ibiltzen den lekuan sortuko dela aukeraren bat. Lehendik ere Parisen baditut koadro franko eta koadroak erosiak zituzten horiek animatu naute joateko. Sikologikoki ere Parisek bertze zerbait erran nahi du jendearentzat. Azaroaren 22an irekiko da erakusketa eta astebe- tez egonen da zabalik. **Gehien bat paisaiak margotzen dituzu...**

Paisaietan ere ez da gauza bera itsasoa margotzea, edo mendiak edo ibai bat. Baina baditut inauterietako gaiak irudikatzen dituzten koadroak ere, Lesakako zakozarrak, Zaldikoa, Lantzeko inauteriak, Euskal Herriko ohiturak...

BERTIZARANA → HAUTESKUNDEAK

Azken aldian kontzejuak osatzeko zailtasunak dituzte Legasan, Narbarten eta Oieregin

Hauteskunde hauetan egin diren bi deialdietara ez da inor aurkeztu hiru kontzejuetan

Lehendakariak edo alkateak eta lau bokalek osatzen dituzte Legasa, Narbarte eta Oieregiko kontzejuetako juntak. Lau urtetik behin deitzen dira ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak baina azken urteetako

deialdiek ez dute arrakastarik. Ez da zerrendarik aurkeztu eta badirudi inork ez duela kargua hartu nahi. Azaroaren 20ko hauteskundeetan ere ez dute kontzejuako ordezkariarik aukeratu hiru herrietan.

G. PIKABEA

Egitura berezia du Bertizaranak. Udalerri bakarra da, baina bere baitan hiru herri biltzen dituena: Legasa, Narbarte eta Oieregi. Antolakuntza administratiboari dagokionean ere ez da eskualdeko bertze udalerriak bezalakoa, eta berezko hainbat ezaugarri ditu. Udal bakarra dute hiru herriak, Bertizaranako Udala, baina horrez gain, herri bakoitzak bere kontzejuua du. Udalerriaren barne dauden bertze tokiko erakundeak dira kontzejuak, ondasun eta eskumen jakinak kudeatu eta administratzeko izaera juridiko propioarekin.

Legeak hainbat eskumen aitortzen dizkie kontzejuiei: ondarea administratu eta zaindu, eta bere erabilera eta aprobetxamendua erregulatu eta antolatu –honen barne mendiak–; argiteria publikoa; bideak zaindu eta garbitu; hilerriak eta herriko bestak. Horrez gain, Bertizaranako Udalak kontzejuen esku utzitako bertze ardura bat ere

badute Legasa, Narbarte eta Oieregiko kontzejuak: ura. Udalarekin egindako akordio bat tarteko, urari dagokiona kontzejuak eramatea dute, eta trukean, Udalak dirua ematen die. Kontzejuen diru-iturri aipagarrienak,

berriaz, Nafarroako Gobernuak biztanleko ematen diona eta mendi eta ehizatik ateratzen dutena dira.

Nafarroan dauden 348 kontzejuen antolaketa ez da berdina. 12/1991 Foru Legearen arabera, 16 eta 50 biztanleko kontze-

juen kasuan, lehendakaria eta herriarren asanblada arduratzen dira kontzejuako lanaz eta 50 biztanletik goitikoetan junta bat dute. Horixe da Legasa, Narbarte eta Oieregiren kasua: junta bat dute, presidenteak (alkatea dei-

tua) eta lau bokalek osatua. Legearen arabera, lau urtetik behin egin behar dira kontzejuako ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak eta aurtentokatu da. Maiatzean egin zen lehenbiziko deialdia eta hiru herrietan ez zen



Bertizarana bailararen paisaia.

ANTONIO ERREGERENA, BERTIZARANAKO ALKATEA

«Ez dago aski baloratua kontzejuetako alkateek herrietan egiten duten lana»

Maiatzeko hauteskundeak irabazita, Bilduko Antonio Erregerena da Bertizaranako alkate berria. Hauteskunde aitzinetik Bertizaranako hiru herrietarako albinte bat hartzearen aldeko apustua eginen zutela iragarri zuten, eta orain ere asmo horri eusten diote: «albin-tearen figura sortu nahi dugu eta horrek orain kontzejuetako alkateek egiten dituzten lanak egiten lituzke». Izan ere, Erregerenaren irudiko, «ez dago aski baloratua alkateek herrietan egiten duten lana. Kontzejuetako alkateek arduraz haundia dute, eta trukean ez dute deus ere». Gaineratu digunez, «zerbait ongi egitean batzuk hurbiltzen dira zerbait erratera, baina batez ere, akats txiki bat dela ere, beti kritika destruktiboa egitera

hurbiltzen da jendea». Kontzejuetako ordezkariak hautatzeko bigarren hauteskunde deialdian ere ez da inor aurkeztu ez Oieregin, ez Narbarten eta ez Legasan ere, eta horren harira, «komodo jarri garelako» uste du Erregerenak: «jendea ez da motibatua ikusten, ez delako aski konturatzen kontzejuetako alkateen lana nolakoa den. Jendea hurbilduko balitz, eta zer lan egiten den ikusko balu...». Egoeraz jabetuta, alkateen ardura arindu egin nahi dute albinte bat kontratatuta: «begira hasiak gara –dio Erregerenak–, eta heldu den urtean ea nondik lortzen ahal dugun eta zein dirurekin kontatzen ahal dugun». Oposaketa bidez aukeratuko lukete. Eta horrez gain, kontzejuen eta Udalaren arteko



Antonio Erregerena

elkarlana bultzatu nahi dute: «udal-etxean gaudenetik, alkateei eskua botatzen saiatu gara. Hirigintzan, argindarrarekin eta depuradorearen gaian elkarrekin ari gara. Erabakiak hartu aitzinetik, bilerak egiten ditugu denon adostasuna bilatzeko. Bi aldeen arteko elkarlana indartuta lana erraztuko da».



ARTXIBOKO ARGAZKIA

inor aurkeztu. Urrian bigarren deialdia eginda koan ere zerrendarik gabe gelditu ziren hiru kontzejuko eta airean dago hurrengo lau urteetan zer gertatuko den.

Zerrendarik ez aurkeztearena ez da berria. **Legasan**, duela lau urte, lehenbiziko deialdia hutsik gelditu eta bigarreneko osatu zen taldea. Orduan sartu ziren Aitor Zelaieta, Asier Irisarri, Laura Andresena, Iban Urriza eta David Andresena kontzejura. **Narbarten** aspaldi ez da kontzejua berritzeko hauteskunderik egin. Zerrendarik ez, eta botazio bidez aukeratu dira azken aldietan ordezkariak: Jabier Arretxea, Enrique Oteiza, Itziar Iriarte, Manuel Irungarai eta Jose M^a Iriarte daude juntan. Eta **Oieregin** orain lau urte talde bakarra aurkeztu zen hauteskundera eta aldi honetan inor egin ez denez, segitzekotan dira: Jose Jabier Nosellas, Juana Paula Galañena, Alejo Mindegia, Jose M^a Galarregi eta Carlos Zamora dira.


KONTZEJUEKAK ALKATEAK SOLASEAN



Aitor ZELAIETA | Legasa

«Joera honekin, kontzejua dena Udalari pasatzeko aukera eskura uzten diogu Gobernuari»

Duela lau urte kontzejuko ordezkariak izendatzeko hauteskundeak deitu zirenean, lehen deialdian ez zen inor aurkeztu Legasan eta bigarrenean taldea osatzea erabaki zuten Aitor Zelaietak eta kontzejuko bere kideek. Botazioa egin eta alkate izendatu zuten. «Illusio haundiarekin» hasi zirela kontatu digu, baina orain egunerokoa aldatu zaien honetan, biltzeko «gaizki» ibiltzen omen dira. Kontzejuko bere dedikazioa eskatzen duela aitortu digu: «bilerak, deiak, lotura, jendea etxean edozein ordutan...». Eta dena musutruk. «Kexak esker oneko hitzak baino gehiago» direla azaldu digu: «edozein gauzarekin jaleak izaten dira eta inork ez du kontzejuan sartu nahi». Bere ustez, «ardura ez hartzeko joerak segitzen badu, kontzejuko ez du ditzira haundiko etorkizunik izanen. Gobernuari eskura uzten diogu kontzejua dena Udalari pasatzeko aukera». Alde horretatik «kontzejutik pasatzeko denek kontzientzia-ituak egon beharko luketela», iritzio. albintea jartzearen aldekoa ere bada: «udan langileak hartzen dira eta horren ordeztu, kontzejuan sartu ginenean, hiru herriandako lanpostu bat sortzea proposatu genion Udalari, baina ez zuen beharra ikusi. Iduri du oraingo Udalak albintea hartu nahi duela eta horrek lagunduko luke. Udalarekin elkarlanean, gauzak hobetzen ahal dira». Herritarrei, berriz, mezu hau luzatu die: «ahal dena egiten saiatu gara eta ea animatzen diren eurek kontzejuan sartzera».



Jabier ARRETXEAK | Narbarte

«Hemen ez dago dirurik eta kobratu gabe inork ez du lanean ari nahi»

Zortzi urte daramatza Jabier Arretxeak Narbarte alkate gisa. Ez bera eta ez kontzejuko bertze kideak ere, ez ziren hauteskunderen aukeratuak izan, inor aurkeztu ez, eta talde bat osatu zutelako baizik: «aspaldian Narbarten ez da hauteskunderik egin kontzejuko ordezkariak aukeratzeko. Inor aurkeztu ez denez, botazioa egin da eta boto gehien dituztenei deitzen zaie». Horrela sartu zen alkate. Kontzejuko «nahiko egoera kaxkarrean» ikusten ditu Arretxeak: «ez dago diru sarrerarik, lanak badira, eta kobratu gabe inork ez du lanean ari nahi». Bere ustez, «gero eta patxadazaleagoak gara eta gazteek ez dute kontzejuan sartzeko asmorik». Jendearen jarreraz ere aritu zaigu: «zerbait ona eginez gero, batek edo bertzeak eskertzen du, baina kritikatzeko denak prest gaude. Gibeletik airtzeko beti bada bakarren bat eta horrek gogoak kentzen du». Ez du uste kontzejuko lana zaila denik, «gogoak eta arabarako taldea» izanez gero, ongi eraman daitekeela pentsatzen baitu. Oraingo Udalarekin duten harremana «hobea» dela ere kontatu digu eta albintea jartzearena «ideia ona» delakoan dago: «aspaldi genbiltzan horren gibeletik eta gure lana arinduko luke». Antolaketaarekin, ordea, kritikoa ageri da: «dagoen diru pixarra udaletxean dago eta edozein obra haundi tokatzen dela, gastuak erdibana egin behar dira». Udalak zergen bidez bertze modu batera joko dezake baina kontzejuko ezin du deus egin».



Jose Jabier NOSELLAS | Oieregi

«Kontzejuko lana ez da hagitx lotua baina beti bada zerbait eta denbora joaten da»

Lau urte egin ditu Jose Jabier Nosellasek Oieregiko alkate lanean eta seguruenik bertze lau urtez segituko du, hauteskunde hauen bigarren deialdian ere ez baita inor aurkeztu. «Bertze lau urte pasatuta ikusiko dugu zer gertatzen den», adierazi digu. Bere hitzetan, «kontzejuko lana ez da hagitx lotua, baina beti bada zerbait eta denbora joaten da. Inorez dago denbora galtzeko, eta are guttiago, kobratu gabe». Kontzejuko egoera «nahiko kaxkarrean» ikusten ditu: «hemendik urte batzuetara agian desagertuko direla esaten zen lehen. Gainera, osatzeko beti arazoak izaten dira». Kontzejuek etorkizuna izatea gustatuko litzateke, herritarrengandik hurbilago daudela, baina «krisiarekin, Gobernuak dirulaguntzak murrizten baditu, dena udaletxera joan da eta guri dena kenduta ez dugu deus egitekorik izanen». Jendearen aldetik, ordea, ez du presiorik nabaritu: «biztanle aunitz ere ez gara, eta ez dut kexarik somatu. Alderantziz, ez dira hainbertze sartzen». Urak eragiten omen die buruhausterik haundiena: «ura falta bada, jendea kexaka hasten da. Hemen bizi garenok badakigu zer den hori, baina hemen bigarren etxebizitza duten kanpokoak exijentziekin etortzen dira». Udalarekin duen harremana ona dela ere aitortu digu: «udal berriarekin ongi hasi gara eta aurrekoarekin ere nahiko harreman ona genuen». Eta albintea jartzeari buruz? «Ongi etorriko litzateke eta gauza batzuetan gure lana arinduko luke».



Nire txanda
Iñaki ALUSTIZA

Iragazkia edo filtroa

Bizitzan zoritxarrez guztioi iragazki batetik pasarazten gaituzte. Urtetan saldu izan gaituzte, itxura polit bat eta unibertsitateko ikasketak, garrantzi handia dutela bizitzan. Ikuspuntu horrekin jarraituz edozein gaztek eta ez gaztek, 'tuneatu' nahi du bere itxura eta unibertsitatera joan, iragazkiaren uestezko alde onera pasa eta bizitzan zeozer dela sentitu. Ba oker gabiltza, beharrezkoa ez den iragazki bat erabiltzen ari gara. Hasi gaitezen bizitza honetan iragazkirik gabe bizitzen, balora ditzagun pertsonak diren bezala, pertsona saiatuak, abilezia dutenak, umore onekoak, borondatea dutenak... eta goraipa ditzagun ere ofizio bat ikasi (nahi) dutenak; hauek bereziki izango baitira gure herria 'altxatuko' dutenak. Saia gaitezen pertsonak diren bezala onartzen, beraien alde onak indartzen, bakoitzaren trebeziak baliatzen, denok denon beharretan baikaude. Hori bai, ikas-tea inoiz ez dago soberan.

«Hasi gaitezen bizitza honetan iragazkirik gabe bizitzen»

Ezpala

Aitor AROTZENA

AHT (Abiadura Handiko Tarta)

Lotsagarria. Iraingarria. Nafarren borondatearen kontrako eraso bortitza eta onartezina. Herriarren nahiaren aurkako ekintza. Krisi garai honetan murrizketarik jasan ez duen azpiegitura bakarra den eta Añamendia aldinbertze pasatuz egin nahi duten trenbidea? Ez! Soldata bikainaz gain dieta ezin goxoagoa behin ez ezik bi aldiz jasotzea? Eeeeez!!! Tarta! (?). Merenge-merenge!

Nabarmentzekoak



Angel MARIEZKURRENA
Kantu Zaharren Eguna



Mañoli LOIARTE
Esne Beltzarekin kantari



Joxemari SESTORAIN
Poema liburua itzulia

Aurten ere ez du hutsegingo eta azaroaren 26an jarria dago hitzordua Landibarko Ugara-n jatetxean. Zortzigarren Kantu Zaharren Egunerako txartelak salgai daude dagoeneko.

Larunbat honetan ospatuko den Goizuetako Gaztetxearen 20. urteurrena iragartzeko Esne Beltza taldeak egindako kantuan abestu du emakume goizuetarrak. Gaztea begi gazte!

Miquel Martí i Pol olerkari kataluniarraren *Estimada Marta* euskarara itzuli du leitzarrak, *Marta maitea* izenburupean. Azaroaren 22an aurkeztuko da Iruñeko Auzolan liburudendan.

Atzera begira → 2001.11.15 / TTIPI-TTAPA 314. zbk



Sarako mahasti eta ardogintzaz Fermin Urbistondorekin

Ba al zenekien Saran ardoa egiten duten bortz bat baserri bazirela duela hamar urte? Ithia baserriko Fermin Urbistondok aipatu zigunez, aspaldiko ohidura galtzen ari zen, «jendeak ez du astirik mahastiak hartatzeko, ohidura aspaldi galdu da». Beraiek uztarekin, «gehienez ere bi barrika, bi bordeles egiten ditugu, mahatsa beltza eta xuria biltzen da hemen». Mahastiek lana bertzerik ez dutela ematen eta «bereari begiratuko banio ez nuke huntan segituko, zinez natura behar da maite segitzeko» aipatu zigun Urbistondok eta etxeko harrizko tolar zaharra denborarekin moldatzea gustatuko litzaiokeela.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Andueta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usua Vicente, Kulturkari SLU **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Martin Bertiz, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Tellebexa, Joana Guerenadiain...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea

2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	37€	Europa	55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	31€
Ipar Euskal Herria	55€	Amerika eta Australia	123€	Leitza	15€



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak
diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Bildu gaitezen, arren, hitz egin, mintza eta elkarri eskua eman

Ainara MAIA

Zorionak, Euskal Herria! Zer moduz zaude? Ni Txekiar Errepublikan nago laugarren urtez, arrazoi berezirik gabe, euskara eta euskal kultura zabal-tzen unibertsitatean, baina arrazoi berezirik gabe, ez bainaiz hona etorri maitasunagatik edo askatasunaga-tik. Europaren bihotzean segitzen dut bizirik, taupada-ka, bihotz minez, maiteminez bakarrik, eta Euskal He-rri osoa ene itxaropen ahulezko bihotzean. Ez dut Eus-kal Herriko bihotzeko lagunen berri, ez dakit gaixorik edota lanpetuegi dabilzan euren berri neuri emateko, baina espero dut ongi egotea. Nik hiru urte hauetan erantzunik gabeko eskutitzak eta postalak igorri dizkiet, baita posta elektroniko ugari ere. Espero dut ongi ego-tea, eta laster elkar ikustea, abenduan. Espero dut ETak zabaldu duen itxaropen-izpi honek Euskal Herria pix-ka bat argitu duen bezala, Es-painia, Frantzia, Europa eta mundu osoa argitzea, izan ere mundu honetan gerra gehie-gi baitaude zabalik. Neure barneko gerra oraindik ez da eten, eta bizi naizen artean hala izanen dela susmatzen dut.

«Neure barneko gerra oraindik ez da eten, eta bizi naizen artean hala izanen dela susmatzen dut»

Espero dut ene bihotzeko la-gun poeta oiartzuar lore-ka-pulua zoriontsu egotea, aita izan delakoz, eta espero dut ene bihotzeko txistu isi-lak berriro ere *Ich liebe ain* edo *maite zaitut, ainara* e-rran diezadala berriro, begiradaren irribarreaz, begie-tara begira zintzo jokatzuz. Espero dut maite nauzuen eta nauten, maite ditudan guztiok, eta gainerako ira-kurle eta ez irakurle guztiok ongi egotea, itxaropentsu, maitasunez beterik, elkartasunezko besarkada batean bildu gaitezen.

Espero dut Espainiak eta Frantziak dagokien moduan erantzun diezaiotela piztu berri den itxaropen-izpi ho-ni, oraingoz ez baitute egin eta denok dakigu Sarkozy ere aita izan dela, Giulia neska zoragarriaren aita, zo-rionak zuri, Nikolas!

Espero dut laster Euskal Herria libre eta independen-te batean ene txistu isilarekin egotea, maitasunez. Ene familia osoarekin urteberriarengatik topa egitea eta 2012a denontzat ona izatea, 2012an bai! Nahiz eta ba-dakidan mundu honetan orain arte batzuk zoriontsu izateko beste batzuk zoritxarreko izan behar dugula, batzuk aberatsak izateko beste batzuk pobre, denon maitasunaren indarrarekin lortuko dugu mundu hobea-go bat, ala? Uste duzu ameslari bat naizela?

Bildu gaitezen, arren, mintza, hitz egin, begietara be-gira zintzo jokatzuz, eta elkarri eskua eman behingoz eta betiko aske izan dadin Euskal Herria eta Euskara. Eta nire bihotz min honetatik, atzerri min honetatik, amodio/desamodiozko bakardade honetatik heldu na-zazue eskutik, arren, ainara zauritu hau amildegira eror ez dadin, arren.

Gurpila orain hasten da biraka

Tere SAEZ (Berdintasunerako teknikaria)

E-TAK jarduera armatua behin betiko utzi duela eta poztasuna erakutsi eta ospatzeko garaian gaude, jendarte osoaren lorpena baita. Biktimak gogoan dauden unea da. Ezberdintasun politikoak moldatzeko modua ez zela tiroak botatzea edo bertzeta paretik ken-tzea erakutsiz urtez urte aritu diren pertsona anonimoen-tzat edo Lokarri bezalako mugimenduentzat une hagitz berezia da. ETak utzi behar izan du, konbentzimenduz edo gabe, estrategia hutsez edo hausnarketa baten ondorioz. Inork ez du bere auto azpian begiratu beharrik izanen, ezta maite duen pertsona baten zentzu gabeko heriotzarenga-tik negar egin beharko, hori da garrantzitsuena. Ea berdin pozten ahal garen inoiz gehiago ez dugulako aditzen tor-tura sexistak salatu dituen gazte baten testigantza, edo ama batek bere semea ikusteko kilometroak eta kilome-troak egin behar ez izatean. Edo eri dagoen bat kartzele-tik ateratzeko modua izan dezan sendatzeko. Bere ideien-gatik inor kriminalizatzen ez dela ikustean. Edo alderdi gu-ziek eta bere ideiak hitzen bidez defendatzeko aukera izan dezaten. Historiaren zati hau bukatu dadin, alde guziak adituak eta ulertuak sentituta, pertsiana gorrotorik gabe jausteko aukerarekin, egoera indibidualen gainetik, nahiz hauek ere baduten justizia eskatzeko eta ez barkatzeko eskubidea.

Poztasun kolektibo honetan denek badute bere legiti-mitatea (horrek ez du esan nahi arrazoi osoa dutenik) bere bertsioa kontatzeko: porrota, gatazkaren soluzioa, irabazle-ak eta galtzaileak, ezker abertzale ofizialaren zuzendarit-zaren indarra, zuzenbide estatuaren eta segurtasun in-darren sendotasuna, hauteskunde estrategia... Inork ezin du, ordea, alde guziak aditzeko ahalegina alde batera utzi eta norbere lubaki ideologikoetan gorde. Horrela ez da ai-tzina eginen bakearen eta denbora politiko berri baten ilusioan.

Errealitate berri honen kudeaketa ez da erraza eta bizko-rra izanen, zaila eta mingarria baizik, batez ere hurbiletik sufritu dutenentzat, baina berehala eskatzen ditu adimen, eskuzabaltasun eta enpatia dosi handiak, biktimei kasu eginez, presoak hurbilduz, eri daudenak edo bere zigo-rak bete dituztenak askatzuz. Otegi eta bera bezala, orain denok ospatzen ari garena defendatzeagatik kartzelan daudenak espetxetik ateraz. Epaiketa politikoak geldiaraziz, kasu bakoitza egoera berritik eta biktikaren oinazetik aztertuz, odol delitua non dagoen eta non ez bereziz. Sor-tu legalizatuz (...).

Horregatik, biraka hasten den gurpil honetan, bertzeta terrorismo batekin bukatzea gelditzen zaigula gogoratu na-hi nuke, emakumeak emakume izateagatik hiltzen duena-rekin. 1999tik (estatistikak dauzkagun urtetik), biolentzia matxistak 816 emakume hil ditu. Horietatik 12 Nafarroan, azken hamar urteotan. Urriaren 21a bertzeta arrazoi bate-gatik ere egun hagitz garrantzitsua izan zen: Gizonezko-ak Iruñeko eta bertzeta tokietako karriketara atera ziren, na-hikoa dela adierazteko eta gizon bezala, ez dutela basa-keri honen konplize izan nahi agertzeko. Hori ere bidea da.

Irakurleak mintzo

Lyon-Corbas
Kolektiboa
borrokanLyon-Corbaeko euskal
preso politikoaren kolektiboa

Urriaren 15ean Lyon-Corbaseko kartzelazainen probokazio berri baten aurrean aurkitu gara bertan preso gauzkaten sei euskal preso politikok. Udaz geroztik kartzelazainen aldetik jazarpen maila areagotu zela eta zuzendaritzarekin gutxieneko bizi-baldintzak lotzeko ahaleginak egin arren, alferrik izan da. Kartzelako zuzendaritzak, hona ekarri gintuztenetik gure izaera politikoa ukatzeaz gain, gure oinarritzko eskaerei entzungor egiten jarraitu du... azken probokazioa iritsi arte. Hona ekarri gintuztenetik, etengabeko probokazio eta barrabaseriak kudeatu behar izan baditugu ere, larriena ikustaldi-eremua kudeatzen duen kartzelazain-taldearen aldetik jasari behar izan duguna izan da. Azken bi hileotan, gure militantzia politikoa eta armatuari egindako erreferentzia iraingarriak egin izan dizkiguten kartzelazain berek egindako informeen ondorioz, ogitarteko bat ekarteagatik hilabete baten behera utzi izan dute gure senide eta lagunei; bikote baten barne-ikustaldian besarkatuta egoteagatik (frantses karteletan ez dago ikustaldi intimoak izateko eskubiderik) ikus-

taldi-baimena emana zuen epailea ohartarazi eta baimena behin betirako bertan behera uztea lortu dute; senide eta lagunak aitzakia txikiena baliatuta utzi izan dituzten kartzelako atarian 800 km-ko bidaiaren ostean; bikote baten semearekiko ikustaldi ia guztietan arazoak sortu dituzte... Giro horretan kokatu behar dira urriaren 15eko gertaerak. Bezperan, goizetik Euskal Herriatik abiatu eta Parisen barrena Lyonera iritsi zen haurrari bere gurasoekin batera egotea eragotzi zioten. Zuzendari, epaile, arduradunen oniritzia eta behar ziren baimen guztiak izan arren, ikustaldietako kartzelazain-taldea eta bereziki larunbata horretan arduradun zegoen kartzelazain-burua beraiek nahi bezala egingo zela ikustaldia erabaki zuten: haurrak ez zituen bi gurasoekin batera ikusiko. Alferrikako akizan ziren guztion ahalegin eta protestak, beraiek erabakitako inposatzea lortu zuten. Ondorioak larriak izan ziren. Marixol Iparragirre bultzatuta eta lurrera bota zuten, Jone Lozano ere bultzatu zuten, eta bieiek eskuburdiak atzean estu lotuta ikustaldien eremutik emakumeen ataleko zigor, ziegetaraino *manu militari* eraman zituzten: airean, burua aurretik, ahospe, eskaile-ratan gora eta behera, ibilbide luzean. Biek dituzte zauri eta ubeldurak, kolpeak eta gorputz osoa minbera. Kolektiboaren jarraera irmoak eta sendoak lortu du beren



Bota bertsoa

Julen ZELAIETA (Berako bertso eskola) • Doinua: Gai horrek badu mamia

Barcinaren tartazoa

Toulouse aldetik mundura
berri kurioa,
lekutan utzi duena
Bushen *Zapata*zoa.
Hori da hori *Tartazoa*
hori da eraso,
Yolanda Barcinak le(he)ngo
egunean jaso!
nahiz goitik betti zikindu
non dago arazoa?
ea non egin dioten
hain harrera gozoa!

Aspaldi horrelakorik
ez genula ikusten
ez dakit bere lekuan
nik zer egingo nukeen
AHTaren aurkako
batzuk bota zituzten
ahiz ni ere aurka egon
ez dut argi ikusten,
ongi egin ote dute
hiruak libre uzten?
pentsatzen hasi ezker:
tartek ze kulpazuten?

gezurrak agerian uztea, egindako gehiegikeriez jabetzea eta Marixol eta Jone zigor ziegetatik ateratzatzen behartzea, jarri nahi zieten zigorra bertan behera utziz. Aipatu nahi dugu ere emakumeen ataleko gainontzeko presoen aldetik jaso dugun elkartasun eta babes beroa. Euskal presoon aurka egindako gehiegikeriaren aurrean, zigorra erabaki behar zen tribunaletik igarotzeko zeudela, emakume guztiek bazka errefusatu zuten eta ordu laurdeneko burrunba egin zuten Jone eta Marixolen askatasuna eskatzuz.

Biziz dugun egoera bortitz hau behingogatik gauzak argi uzteko baliatzea erabaki dugu. Ondoko egunetan kartzelako agintariak arazoaren gainaz jabetu direla dirudi eta aurrerantzean Lyon-Corbaseko euskal presoon eta gure senide eta lagun arteko ikustaldiak modu eta egoera lasai eta egokian gertatuko direla hitz eman du.

Ibardingo Altzuri
Astondoan
gertatutakoz

Koldo SAENZ (LAB)

Altzuri Astondoa Ibardingo kaxkoan dagoen 10 langileko benta bat da. Denon bistara da komertzioaren sektorea krisia dela medio ez dagoela bere momenturik horerenean, baina hala ere gertaturikoa larria izanik salatu beharrean gaude.

Urriaren 4an enpresak erregulazio espediente bat aurkezteko dokumentazioa erakutsi zigun, non enpresak 18 hilabetetarako %50 eko erregulazioa planteatzen zuten langileentzat; hau da 9 hilabeteetan langabezira joatea. Enpresak gure akordioarekin lruñean erregistratu nahi zuen, epeak murrizteko Nafar Gobernuaren aitzinean. Enpresaren egoera ekonomikoaren berri ez geneukalako ezin genuela baloratu erantzun genuen, beraz kontuak

uzteko eta bitartean langileekin egonen ginela. Enpresaren jarrera hasieratik txantaia egitea izan da, erranez ez bazen hori onartzen 4 langile kalera botako zituela. Kontuak aztertu eta langileekin egon ondoren urriaren 19an langileek enpresari jakinarazi zioten gauzak bertze modura egin zitezkeela, langileen ordezkariarekin solastu egin behar zela, baina EEEaren terminoak gogorregiak zirela. Horren aurrean enpresak 2 egun beranduago bere mehatua gauzatu eta lau langile kaleratu zituen kaleratze indibidualen bidez.

Horrelako jarrerarik ez dugu onartuko eta langile horien alde gure esku dagoen guztia egingen dugu. Gogor salatu nahi dugu, enpresaren jarrera kazikila eta totalitaria; krisi egoera baliatu nahi izan dutelako plantilan mehatua eta malgutasuna inposatzeko, kaleratutakoen etorkizuna eta bizitza pertsonala kontuan eduki gabe.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.net**
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Hator Amaiurrekin!

Peio Etxabide Gartzia, Lesa-
kako alkatea; Antonio Erre-
gerena Vera, Bertizaranako
alkatea eta Garbiñe Elizegi
Narbarte, Baztango alkatea

Zubiaren sinboloa au-
keratu du Amaiur koali-
zioak bere apostu politi-
koa ezaugarritzeko. Zu-
biak, bai; alde desberdi-
nak elkartzeko, lotzeko,
komunikatzeko. Zubiak
eraikitzen ari gara, Eus-
kal Herriko ezkertiar eta
subiranozaleak biltzeko;
elkartu eta indarrak pila-
tzeko. Gero eta indar ge-
hiago, Euskal Herriaren
normalizazio politikoan
urratsak emateko; Eus-
kal Herriaren nazio aitor-
tza eta erabakitze eskubi-
dea onartzeko. Zubiak be-
har ditugu, gure proiektu
soziala eraikitzeko, langi-
leen eta herri sektoreen
interesak nagusiarazte-
ko, eredu publikoa indar-
tzeko, parekidetasuna
sustatzeko, lurra zaintze-
ko, gure hizkuntza eta kul-
tura goratzeko. Hautes-
tontziak indar, gogo eta
borondate eraldatzailiaz

bete eta gainezka egina-
razi behar ditugu. Eta hau-
testontzietako boto pa-
perak herri, auzo eta es-
kualdeetan herritarren
mugimendu geldiezin eta
neurrigabeen bihurtu. Mu-
gimenduan dagoen he-
rria da zubipeko ugaldea.
Erreka gorarazi behar du-
gu, bazterrak gaingitu,
langile eta gainerako
herritarrek krisi garai ho-
netan gure ahotsa entzu-
narazi. Auzaren mendi
hegalean hasten den Bi-
dasoko urek gainezka
egin dezatela, gure esku-
aldeko herrietako hautes-
tontziek boto ezkertiar eta
abertzaleez gainezka egin
dezatela, eta batez ere
eguneroko dinamika urez-
tatu dezatela. Amaiur Ma-
drilen egonen da, Euskal
Herria ordezkatzuz, Eus-
kal Herriko langile eta he-
rritarren interesak defen-
datuz; indartu eta babes-
tu dezagun Amaiur, indar-
tu eta babestu dezagun
herri eta auzoetako egu-
neroko lana boto-pape-
rekin, konpromisoekin,
antolaketaekin, lanare-
kin. Busti gurekin, hator
ugalde honetarat, hator
zubiak eraikitza eta
Amaiur babestera!

11 galdera labur

Nor da Hodei Lujanbio?

Goizuetar gazte bat, beste asko be-
zala azkenaldian azaroaren 12ko os-
pakizuna prestatzen ari dena.

Zein mugimendu dago herrian Gaz- te Asanbladaren bestaren atarian?

Oraindik lanerako mugimendua, de-
na prestatua egon besterik ez eta!
Ez, nabari da jendea gogoz dagoela,
eta azken egun hauetan hasi da jen-
dea gehiago mugitzen...

Eguna ailegatzeko gogoz ala urdu- ritasun pixka batekin zaude?

Bietatik pixka bat. Gogoa, aspaldi
itxoiten gauden eguna delako. Eta
urduritasuna! Egindako guztia eta
gero, nola funtzionatuko duen...

Nolako eguna espero duzue?

Ahaztuko ez dugun eguna, seguru!

Buruhauste haundiak prestakete- kin?

Nahikoa lan bai! Halare,
nahiko ongi moldatu gara,
giro polita dago gure ar-
tean eta *gustuko lekuan*
aldaparik ez.

Nola ikusten dituzu Goi- zuetako gazteak?

Jatorrak eta parran-
dazaleak oroko-
rean, gehie-
nak hain pa-
sibo izatea
faltoa!

Gazte Asanbladari nolako etorkizu- na ikusten diozu?

Espero dugu hemendik 20 urtetara
martxan ikustea! Azkenaldian sartu
diren generazio berriak ez dira asko
inplikatzeko momentuz, eta beldur
pixka bat ematen dit etorkizunak,
baina espero asmatuko dugula mo-
tibatzeko eta bidea erakusten.

Zer egiten duzue urtean zehar Gaz- te Asanbladan?

Herriko jai gehien antolakuntzan
laguntzen saiatzen gara, eta ekintza
gehiago aurrera eramaten ere bai.

Gazte Asanbladaren 20 urteak esal- di batean laburtzekotan...

Tiriki ttarraka, maldan gotti!

Zer du Goizuetak faltan eta zer so- beran?

Soberan deus ez! «Karretera eta bu-
katzeko ez diren kurbak» esaten dute
batzuek. Niretzat hori da herri honek
bere xarma gordetzearen arrazoiak.

Zer erranen zenioke jendeari la- runbatean Goizuetara joateko?

Askok ezagutuko dute horrelako
egunetan Goizuetan sortzen den gi-
ro paregabea. Goizetik hasita egun
guztiko egitarau polita da-
go antolatua, gauean
kontzertu ezin hobeak
eta goizaldera arte
juerga ederra. Ani-
matu eta etorri!

Hodei LUJANBIO APEZETXEA → Goizuetako gaztea

PSIKOBIDE PSIKOLOGIA ZENTRUA

TERAPIAK: Bakarkakoa - Bikote artekoa - Familiarra
HELDUAK - HAURRAK - NERABEAK:

Era guztietako arazoak eta gaixotasunak tratatzen ditugu
IKASKETA TEKNIKAK eskolan arazoak dituzten haurrentzat
GURASOENTZAKO LAGUNTZA TALDEAK: Talde terapiak

Lehenengo kontsulta dohainik, deitu eta informatu zaitez!!

Kolon Pasealekua, 64 beheak • 20301 - IRUN
Tel. 689 639 543 • www.psikobide.com



GIZARTEA

HEZKUNTZA PUBLIKOA → URRIAREN 27AN

Irakaskuntza publikoan deitutako grebak segida handia izan du eskualdean

Eskualdeko ikastetxe gehienetan jarraipena %100koa izan da

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Hezkuntza Departamentuak aurrekontuetan egindako murrizketak salatze-ko, urriaren 27rako greba deitua zegoen irakaskuntza publikoan eta eskualdean segida ia erabatekoa izan zen. LAB, STEE-EILAS, CCOO, CSIF eta ELA sindikatuak deitu zuten protesta eta jarraipenaren aitzinean kontent gelditu ziren.

Nafarroako zonalde ezberdinetako datuen

arabera, jarraipena %50a baino handiagoa izan zen eta horri guttienzezko zerbitzuak egitera derrigortuak izan diren irakasleak gehituta, jarraipena %70aren ingurukoa izan zela adierazi zuten sindikatuek. Hezkuntza Departamentutik Batxilergo eta Lanbide Heziketan guttieneko zerbitzuak egitera behartu zituzten eta gainera zenbait ikastetxetan guttienzezko zerbitzuak greba egin nahi zuten artean banatu ziren. «Guzti honek grebarako eskubidea urratzen duela» salatu dute sindikatuak. Nafarroako Gobernuaren arabera, berriz, grebaren jarraipena %33koa izan zen.

Eskualdeko datuei dagokionez, sindikatu-



ARGAZKIAK: LAB, HITZA ETA UTZITAKOAK

Goiko bi argazkietan urriaren 25ean Beran eta Leitzaan egindako kontzentrazioak ageri dira. Beheitikoa, berriz, Baztangoa da, ikastetxe publiko guztietako ordezkariak parte hartu zuten.

en arabera, irakasleen greba erabatekoa izan da Baztan, Malerreka, Bertizarana, Urdazubi eta Zugarramurdiko eskoletan, baita Arantza, Etxalar, Berako Ricardo Baroja, Leitzako Amazabal institutua eta Igan-tzi eta Goizuetako eskoletan ere. Doneztebeko Mendaur Institutuan jarraipena %92koa izan zen, Lesakako Irain eskolan %83koa eta Berako Toki Ona institutuan %77koa.

Greba egunaren aitzinetik sindikatuak deituta egin ziren bertze mobilizazioek ere, jarraipena izan zuten esku-aldeko ikastetxe publikoetan.

6.000 LAGUN MANIFESTAZIOAN

Egun berean, Iruñean egin zen ekitaldi nagusia, Hezkuntza Departamentutik abiatu eta Parlamenturaino manifestazioa eginez. 6.000 lagun inguruk parte har-

tu zuten. Gainera Tuteran, Donezteben, Lizarran, Beran zein Nafarroako bertze herrietan elkarretaratzeak izan ziren. Manifestazioaren bukaeran izandako polizia erantzuna gehiegizkoa izan zela adierazi zuten sindikatuak eta «hezkuntza hobetearen alde aldarrikatzen ari ziren ikasleek errepresioa jasan zutela» jakinarazi zuten. Lagun bat ere atxilotu zuen Foruzaingoak.



FERIAK

DONEZTEBE

Azaroak 18

LESAKA

Azaroak 23 eta 24

EDERKI

PEUGEOT AGENTE OFIZIALA



PEUGEOT

Grua Zerbitzua 24 ordutan

Mekanika

Elektrizitatea

Txapa

Pintura

Hidraulikan espezializatuak

Leitza errep. • DONEZTEBE • 948 450 525





arozena ostaturia
gosariak eta bazkariak
T. 948 450 443
Leizako errep. 84 - Doneztebe



CTV ALAITASUN
ZENTRU
TEKNIKOA
ONGI PASA
FERIAK
Rosa Seminario, 15 - DONEZTEBE - 948 450 591

Sampi Aragón, S.A.
MARKA GUZIEK KONPONKETA
Mekanika | Elektrizitatea | Txapla | Pintura
948 450 354 | DONEZTEBE
sampilaraagon@telefonica.net



FERIETAN
zure gosari eta bazkariak ARIZTIGAIN kanpinean!!!
OSPAKIZUNETARAKO MENU BEREZIAK
(Ezkontza, jauntzie, batuko, familia bazkariak...)
SUNWILLA | 948 450 540 | www.campingariztigain.com



Pedro J. Martin
Azienda trattaria
hurbilda azienda feria ikusatero
948 450 042
Martínez etxan - DONEZTEBE

DONEZTEBEKO FERIAK

Aziendak eta karrikako giroa goizean, herri kirola arratsaldean

Ohiturari eutsiz, San Martin ondoko ortziralean datoz Doneztebeko feriak. Aurten, azaroaren 18an suertatu dira. Goizean, aziendak ikusteko aukera izanen da Merkato Plaza inguruan. Joan den urtean, ohiko behi gorri eta suitzar arrazako behiekien batera *salers* eta *charolesa* arteko nahasketa zuten behi iletsu batzuk eraman zituzten Bittor eta Antoni Mendiburu aita-semeek. Aurten ikusi beharko. Dena den, salmentan ez da izaten mugimendu handiegirik, jendeak ez duelako neguan behirik nahi, pentsua eman behar zaielako. Udaberrian, aldiz, belagiak garbi kontzeko gehiago erosten dira. Kontuak kontu, aziendez gain, nekazaritzako tresna berrien erakusketa izanen da aparlakekuan, baita hainbertze salmenta postu, taloak eta bertzelakoak ere Doneztebeko karriketan barna.

Nafarroako lehen mailako aizkolari txapelketa eta Euskal Herriko ingude altxatze txapelketa arratsaldean

Urteetako ohitura da Doneztebeko ferietako arratsaldean herri kirol saioen bat antolatzea eskolako frontoian. Batzuetan jaialdi arrunta izaten da, baina gehienetan, txapelketaren bat edo gehiago ere jokoan izaten da. Hala suertatu da aurtengoan ere, ez nolanahiko txapelketak gainera, Nafarroako Herri Kirol Federazioak iragarri duenez. Nafarroako lehen mailako aizkolari txapelketaren finala jokatu da, 17:30etik aitzinera. **Floren Nazabal**, azken urteetako txapeldunak ezin izanen du parte hartu, kanporaketaren atarian etxeko istripu baten ondorioz ezin izan baitzuen parte hartu. Hortaz, bere lekukoa hartzen saiatuko dira **Juan Jose Lopez** (Lezaun, 42 urte), **Jon Rekondo** (Leizta, 26 urte), **Donato Larretxea** (Arantza, 51 urte), **Antonio Senosiain** (Olague, 45 urte) eta **Ander Erasun** (Aurtitz, 21 urte). Aizkolari bakoitzak lau lakanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko moztu beharko ditu. Ferietako herri kirol jaialdia ikusteko 15 euro ordaindu beharko da.

Euskal Herriko ingude txapelketa ere bertan jokatu da. Iturengo **Joakin Aioroa** eta Leizako **Josetxo Urrutia** eta Lazaro Bujan izanen dira eskualdeko eta Nafarroako ordezkariak. Berekin batera Bizkaiko **Igotz Ardeo**, **Unai Ardeo**, **Peru Uri-barnegarai** eta **Kepa Arozena** ariko dira eta kirolari bakoitzak ahalik eta gehienetan altxatu beharko du 18 kiloko burdinezko ingudea, minutu terdian.

MIGUEL ANGEL LACAMBRA, S.L. Husqvarna

UDAZKENEKO ESKAINTZAK
Aukeratu zure modelos prezio ezin hobean

490cc  Husqvarna 450E 450cc, 16" (40.6 cm) barra 52.2 litro 13.5CV (10.1 kW)	500cc  Husqvarna 350 500cc, 16" (40.6 cm) barra 52.2 litro 13.5CV (10.1 kW)	850cc  Husqvarna 372XP 850cc, 18" (45.7 cm) barra 52.2 litro 13.5CV (10.1 kW)
--	--	---

ESKAITZA 249€

230 modeloko erositako jostailuak Husqvarna motorenkin opari

Aparan Ind. 3 / 2. atera | DONEZTEBE
948 451 068 | 687 736 969



Azaroaren 18an, ortziral goizean, Merkatu Plazara aterako diren aziendak ikusteko, lagunartean solasteko eta postuetan erosketak egiteko aukera izanen da. Arratsaldean, berriz, herri kirolak izanen dira frontoian: Nafarroako lehen mailako aizkolari txapelketaren finala eta Euskal Herriko ingude txapelketaren finala.

ORAIN
esteburuban ere
irekia!

Arreda: T.
Tfnak: 948 450 771
DONEZTEBE

goldea
Lathema s.l.

Bel...for...nab...n...
e-mail: goldeakalerna@gmail.com
Poi. Industrial. Amurrio, 4
crta. Donostei (Nafarroa)

Ongi pasa feriak!

**ALTUNA
ERRETEGIA
ITIKEN**

Ostrial egundutan ere irekia

Mendiburu
aziendak • tratantea

Ongi pasa feriak!

Tfnak:
008 076 221
948 450 084
DONEZTEBE

AMAIUR
MUEBLERIA Y FURNITURA
FURNITURA Y FURNITURA
COMUNICACIÓN Y FURNITURA
DISEÑO Y FURNITURA

Rosa Seminario, 13 | DONEZTEBE
T. 948 450 400
info@mueblesamaiur.com

DONEZTEBE | SANTESTEBAN
Tel. 630 779 636
purcosantesteban@gmail.com

esarte

Santiago 83 B bajo
31700 Elizondo
T. 948 581 907
www.precocinadosesarte.com

Ongi pasa feriak!

ZERGALAN

aholkularitza

ZERBITZU FISKALAK:
Aholkularitza fiskala | Zerga agiriak | Errenta altorpenak
BEZ altorpenak | Sozietate zergak | Zure negozioaren zergien kontrola

KONTABILITATE ZERBITZUAK:
Kontabilitatearen aholkularitza | Enpresaren erakutsia | Kontabilitatearen eramatea
Administrazio zerbitzuak | Merkataritza + enpresaren zirkulazio kontzein aurkezpeneak

BERTZE ZERBITZUAK:
Jubilazioaren eramatea | Enpresaren eramatea
Lan-eta erresistentzia berreseraztearen eramatea | Alta eta amatasun bajeak
Langabezi kapitalizazioak | Omu | laguntzak | Negozioen bideragarritasunaren eramatea

Batzariberr plaza, 6 • 31700 • ELIZONDO | Hues kalea, 22 • 31740 • DONEZTEBE
T. 948 451 300 | T. 948 450 303
F. 948 500 648 | www.zergalan.es | Fax: 948 451 304

IRINTZEN

OSTATUA

**OSTIRALETAN
MUS
TXAPELKETA**

Ongi pasa feriak!

Merkatareri karta, 2
DONEZTEBE
948 451 826

Mendaur Motor

Ongi pasa feriak!!!

Autoen konponketa eta salmenta
Txapa eta pintura

Leitzako bidea • DONEZTEBE | T. 948 450 333

Kimetz
Beldardonda

www.kimetzbelardonda.com

Dietari pertsonalizatuak
Naturopatia
Aterragia
Masajeak

T. 948 451 473
Leitzako errep. 3 behea
DONEZTEBE
kimetzbelardonda@hotmail.com

KONTXA

Gasolindegia

✓ Deitu eta egun berean edo biharamunean
etxera eramanen dugu

Ongi pasa feriak!

T. 948 450 272 • F. 948 450 810 • DONEZTEBE

DONEZTEBEKO FERIAK

Doneztebarrak elkarteak tonbola prestatuko du aurten ere eguberrietan

Doneztebarrak Merkatarien Elkarteak lanean segitzen du eta urte osoan hainbat ekitaldi antolatzen ditu, Donezteben erosketak egiten dituzten bezeroak nolabait eskertzeko asmoarekin. Irailean Besta Ttikien inguruan feria bat egin zuten eta hamar bat komertzianta atera ziren. Maiatzaren 1eko asteburuan ere indar hartu du pintxo lehiaketak eta merkatariek egiten dituzten bertze ekitaldiak. Aurten, berrikuntza gisara, Doneztebeko plano argitaratu dute, elkarteko 49 zerbitzu eta komertzioen kokapena zehazten duena eta www.doneztebarrak.com webgunea ere berritu dute.

Ekainean zuzendaritza batzordea berritu egin zuen elkarteak eta honela, gaur egun Kukuka haur arropa dendako **Natalia Rekarte** da presidentea, Kimetz belarden-dako **Lorea Agirre** idazkaria eta Aparango **Silvia Perez** diruzaina. «Juntan sartu ginenean –aipatu digu Natalia Rekarte– bazkide berriak lortzeko kanpaina egin genuen eta 42tik 50era igan genuen eta orain batek utzi egin du».

Urte hasieran izandako lapurreten inguruan ere bere kezka azaldu zuen Doneztebarrak elkarteak, baita sinadura bilketa bat bultzatu ere. «Orain kontua lasaiago dago –onartu du Natalia Rekarte–, Foruzaingoak bilera batera ere konbokatu gaitu, segurtasunari buruz zerbaite egiteko».

Eguberrietan tonbola

Doneztebeko feria egunean denda batzuk euren produktuak karrikara aterako dituzte baina, gainerakoan, ez dute feria egun honetarako deus berezirik prestatuko. Urriaren 27an egindako bileran, eguberrietako kanpaina prestatzen hasi zen Doneztebarrak Merkatarien Elkartea. Iaz bezala, aurtengoan ere tonbola egiteko asmoa dutela aitzindu digu presidentek. «Abenduan egindako erosketen bidez, tonbolako txartelak ematen dizkiegu bezeroei eta berehala ikusten dute saria duten edo ez». Dena den, saritu ez direnek zozketa batean sartzeko zenbakia ere izanen dute eta abenduaren 30ean egingen da zotz. «Jendea bertan egon beharko du, txistorrada, musika eta bertze gauza pila bat egiten da eta sariak bertan emanek, jendea erakartzeko modu bat da». Azkenean 3.000 euro baino gehiago joanen dira saritan eta bezeroek eskertuko dute, dudarik gabe.



Doneztebarrak Merkatarien Elkarteko zenbait bazkide eta zuzendaritza batzordeko kideak, urriaren 27an egindako batzarrearen ondotik.

MARIA MILAGROS ELGEZUA
ABOKATUA

LANTZEHAN PARTHULARAH

OTORRUA FERIAK
 Baserri Berrit plaza, 6 beheko
 31700 ELIZONDO
 Parroquia, 7 beheko
 31740 DONEZTEBE
 Tel eta Fax: 948 450 781
 Mugikorra 682 435 839
miege@hntmail.com



ANGIE ENGLISH ACADEMY

University of Cambridge azterketara aurkezteko prestatuntza

Itzulpen lanak egiten dira

Eskom laguntza

AURTEN OSPATZEN DITUGU 20 URTE MAHERREKAN

Erizabola, 7 beheko - 31740 DONEZTEBE
 T. 626 908 076 - angieschoolmy@gmail.com



OGI BERRI
 BIZKAIARTEKO PAKETAK
 OGIEN GOZOTEGIA

Ogi berriak egunero eta egun gutxi
 Ogiak 8:00-14:30
 Amatek 16:00-21:00
 23 ogi mota ezberdin
 Guretzat: torta eta pastakak aukeratu
ENKANTZAK HARTZEN DITZA
ZELAKONTZAT PRODUKTUAK



SANDWICH-ak:

- Bikini
(York urdazpikoa, gasia eta molleko ogia)
- Rustikoa
(York urdazpikoa edo bodego urdazpikoa, gasia eta hogaza ogia)
- Begetala
(Ogiak desbertinatu. Molleko ogiak edo hogaza ogiak)

Parroquia, 10 • DONEZTEBE • 948 450 819



LESAKAKO FERIAK

Azaroaren 24an Bortz Herrietako aziendak sarituko dira

Lesakako feriak azaroaren 23 eta 24an ospatuko dira eta, ortzeguneko egun handian, Bortzirietako aziendarik onenak sarituko dituzte.

Asteazkenean, Merkatu Eguna izanen da. Bertze urteetan bezala, Irain eskolako jantokian Azoka Ttikia izanen dute 11:00etatik 13:00etara. 18:00etan trikitilariak kalejira egingen dute eta, ordu berean, Beti Gaztek antolatutako **ajuarriero lehiaketari** hasiera emanen zaio Alondigako estalpean edo, urteren batean egin den bezala, eguraldiak lagunguko balu, Beheko Plaza inguruan. Bikote bakoitzak 2 kilo bakailao ekarri beharko ditu. Elkarreak 40 euro emanen dizkio bikote bakoitzari. Bikote bakoitzak gas-sukaldea, kazula, zartagina eta behar dituen tresnak eraman beharko ditu. Antolakuntzak olio, baratxuriak eta gatza jarriko ditu bikote bakoitzaren dako. Sariak sailkatutako lehendabiziko 3 bikoteei emanen zaizkie. Bukatzeko, proba ikustera hurbildu den jendeak, lehiaketan parte hartu dutenek egindakoa das-tatu ahal izanen dute. Lagungarri, ardoa eta ogia banatuko da.

Ortzeguna, egun handia

Baina dudarik gabe, ortzeguneko feria eguna izanen da egun handia. Goiz osorako **artisans erakusketa** antolatu du San Fermin erretiratuen elkarteak Beheko Plazan. **Azienda lehiaketan** iazko sari beretsuak mantenduko dira. Behi-azientei dago-kienez, hiru kategoriatan banatuko dira, holandesak, suitzarrak eta haragitakoak eta bakoitzean hiru sari banatuko dira eta hobekien aurkeztutakoak ere txapela ja-soko du. Zaldi azientzat eta ahariantzat ere hiru sari izanen dira, kopuru ttiki-agokoak. Plazan aziendak ikusgai dauden bitartean, 11:00etan **aizkolariak** ariko dira (Donato Larretxea, ...) eta ondotik Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldia **bertso-lariak**, Bortzirietako bertso eskolak antolatutako saioan.

Plaza inguruan eta Bittiria karrikan hainbertze saltzaile ere izanen dira, beraien pro-dukutuak salgai dituztela eta horien inguruan hainbat jende bilduko da, eskaintza onen baten bila.

Bazkalondoan, **17:30ean pilota partidak** jokatuco dira eta 19:00etan dantzaldia Plaza Zaharrean, Lesakan aurtengo udazkeneko feriak akautzeko.





Behor eta behi ederrak ikusiko dira Lesakako ferietan, bortz herrietatik ekarriak. Ahareak ere sartuko dira lehiaketan eta sari ederrak izanen dituzte.

IÑAKI Arretxea, 12
948 638 287
janaridenda

TXAKAIN
ONGI PASA FERIEKI
T. 948 640 388 / 948 634 852 / F. 948 627 328
Oteango 1ed. 38 • LESAKA | txakain@yaho.es

ONGI PASA FERIEKI!
bortz
948 631 521
Oteango 1ed. 38 • LESAKA | bortz@yaho.es

Ibaiondo janaridenda
Angoli karta
948 637 949
LESACA
ongi pasa ferieki

ITURBENA
kafetegia
T. 619 188 360
Antola 25 - LESACA

| Kafetegia | Ogitaratekoak | Bolleria |

ruth
LIGHTSEERT
DIODOZKO
LASER DEPILAZIOA
Ate irekien jardunaldia:
AZAROAK 21
Lehen kontsulta eta froga **DOAN**
ESKATU ORDUA: 948 637 436
Eltzeta, 3 - LESAKA

KOXKONTA jatetxea
FERIETAKO
MENU
BEREZIA
T. 948 627 519 • 948 627 503 • 689 801 657
Oteango auzoa, 1 • LESAKA



LESAKAKO KOMERTZIANTE ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

Ferietan ez, baina eguberrietako kanpaina prestatzen ari dira

Joan den urtean 1.000 euroko erosketa bonoa zozketatu zuen bezeroen artean Lesakako Komertziantek eta Zerbitzuen Elkarteak Lesakako ferietan. Urte osoan prestatu dituzten ekitaldietan arrakasta handiegirik izan ez dutela eta, aurtan ez dute halakorik eginen, baina dagoeneko eguberrietako kanpaina prestatuxea dute. Hala jakinarazi digute gaur egun 30 bazkide dituen elkarteko zuzendaritza Batzordea osatzen duten Eider Rodriguez, Olga Alzate, Mertxe Antzizar eta Barbaro Solok. Hel-du den urtean erabat berrituko da batzordea, nahiz eta «beharbada hobea izanen zen erditsua aldatzea, zerotik ez hasi behar izateko».

Zozketak Eguberrietarako

Azaroaren 16tik abenduaren 16ra arte egiten diren erosketen truke, sariak zozke-tatuko dira. «Aurtan ez da sari handi bat izanen, tikiagoak izanen dira baina ba-natuagoak eta aunitz: asteburu bat Errioxan, Abxaspin gau bat gosariarekin, igeri-lekuan masaje tratamendu bat, Eguberrietako loteak, erosketa-baleak, eta abar...». Zozketa egunean hurbiltzen den jendearen artean ere bertze sari batzuk zozke-tatzeko asmoa dute. Heldu den urtera begira, Udaberriko eta Udazkeneko Azokarik ez dela eginen argi dute Lesakako komertziantek, «bertze zerbait pentsatzen ari gara, baina garbi dago krisia somatzen ari dela eta jendeak azoka zerbait merkearekin lotzen du eta gure kasuan, dendako prezio beretsuekin ateratzen gara frontoira, ez da saldo edo stock feria». Izan ere, halako azokak antolatzeak lan handia eskatzen du, eta gero jendea ez dutela bildu ikustean «desmotibatu» egiten direla ere onar-tu dute komertziantek. Federazioak ere ez du diruz laguntzen. Bertze aldetik, Be-ra, Doneztebe eta Elizondoko elkarteekin egiten dituzten bilerak «nahiko geldituak daudela» ere aipatu digute, «nahiz eta harremanean segitzen dugun». Berriki, Na-farroako Merkatarien Federazioak antolatuta, norbere webgunea sortu eta Google bilatzailean nola kokatu jakiteko ikastaroa bukatu dute komertziantek batzuk.



Lesakako Zerbitzuen Elkarteko zuzendritza batzordeko kideak: Mertxe Antzizar (Txinelka), Eider Rodriguez (Oninart), Barbaro Solo (Panpina) eta Olga Alzate (farmazia). Legarrako Pi-lar Jauregi falta da.

GIZARTEA → UDALAK ANTOLATU DITU

Gerra bunkerretan barrena mendi itzuli gidatuak eginen dira azaroan eta abenduan

Asier Gogortza argazkilariak gidatuko ditu itzuliak

TTIPI-TTAPA

Udalak antolatuta, azaroaren 13an, 20an eta 27an eta abenduaren 4an gerrako bunkerretan barrena mendi itzuli gidatuak eginen dira.

1940 eta 1948 artean, Pirinio osoan defentsa-lerroa eraiki zuen Francoren armadak, guztira 6.000 bunker inguru. Berako lurretan porlanezko 200 bat nido eta babesleku izanen dira eta gotorleku horietako batzuk kanpotik eta barretik ezagutzea da ibilbide gidatuen helburua.

Asier Gogortza argazkilariak gidatuko du itzuli-

lia. Herrian dauden ehun bunker baino gehiago lokalizatu eta dokumentatu ditu eta horrez gain, *Concrete Landscapes* izeneko argazki erakusketa ere prestatu du, bunker horietako batzuk kamara ilun bihurtu eta paisaiei argazkiak eginez. Erakusketa Gure Txokoa Elkartearen bisita daiteke itzuliaren ondotik.

Ibilbideetan parte hartzeko 012 edo 948 217012ra (Nafarroa kanpokoek) deitu behar da. Euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko dira eta egun horietan 10:30ean egin dute hitzordua Ibaardin go Gorria Bentan.

IKT autobusa Beran

Cederna Garalur Elkartek Aste digitala zure udalerrian: klik batekin aski da proiektua abia-



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Inoiz baino arrakastatsuagoa izan da XXV. Lurraren Egunean

Udako eguraldi eguzkitsuarekin egin zen urriaren 23an Gure Txokoa elkarteak 25. urtez antolatutako Lurraren Eguna. Gainera, «inoiz baino feria handiagoa» izan zela erran zuten antolatzaileek, 134 eskulangile eta produktore plazaratu baitziren. Goiz goizetik Altxateko karrikan eta plazan barna hedatuak zeuden 76 eskulangileen postuez gain, 58 lagunek eramandako barazki eta baserri eta mendietako produktuak ikusgai izan ziren eskola inguruan. **Gazta lehiaketan** hamabi ale aurkeztu ziren eta horien artean, Arantzako Serorenbordako Margarita Madariagak irabazi zuen (220 euro). Bigarren saria (100 euro) Etxalarko Intzekobordako Jose-txo Ariztegirentzat izan zen eta hirugarrena (75 euro) Arantzako Simonenbordako Loli Mutuberriarentzat. **Sagardo lehiaketara**, berriz, 16 botil sagardo aurkeztu ziren eta horien artean, Lesakako Lokarinbordako Imanol Lopezek eskuratu zuen lehen saria (200 euro). Bigarren saririk ez zen eman, bai, ordea, bi aipamen berezi, Alkaiagako Periko Matxikoteren eta Arantzako Joxe Agustin Irigoienek sagardoentzat. Ikastolan, Rosa Errandoneak paratutako argazki erakusketa ikusgai izan zen, Berako baserri buruzko 130 argazkirekin. Bezperan, bosgarren **barazkiopil lehiaketa** egin zen. Hamar koadrilen artean, Bernardette eta Alexek irabazi zuten.

tu du teknologia berriak herritarrei hurbiltzeko asmoz, eta horren barne, IKT autobusa Beran izanen da azaroaren 14tik

18ra. Autobus hau herritarrei zabalik egonen da astelehenetik ortzegunera (10:00-13:00 eta 14:30-17:30), eta ortziralean bi

tailer eginen dira: *ziurtagiri digitala eta nortasun agiri elektronikoa* (10:30) eta *administrazio elektronikoa* (12:00).

‘Bera baserriz baserri’ liburua aurkeztu dute

Bera baserriz baserri liburu berria argitaratu dute Rosa eta Jose Antonio Totonok Errandonea anaia-arrebek zortzi auzoetako 135 baserrien eta bertan bizitu direnen 764 argazkiekin. Aurkezpen ekitaldian, egileekin batera, Marisol Taberna alkatea, auzo bakoitzeko hitzaurreak idatzi dituen Juanma Molinero eta Fernando Mikelarena historialaria izan ziren. Alkateak Errandoneatarren lana goraipatu zuen eta beti historia eta egungo ekitaldiak ezagutzeko eta ezagutzera emateko prest daudela gogorazi zuen. Molinerok ere esker hitzak izan zituen eta «egungo krisiarekin, norbere kabuz eta patrozinatzaile gabe liburuak argitaratzeak ausardia eta herriarekiko maitasun handia» erakusten dituela aipatu zuen. Mikelarenak baserrien historiaren zati bat jakitera eman zuen. Erroldaren arabera 1853an 138 baserri zeuden eta 1646an 67 baserri. Altxateko jaunak urte batzuk lehenago 25 baserri errearazi zituela azaldu zuen: «Bera izanen da Euskal Herriko eta munduko herri bakarra karrika eta plaza bat eskainia diona herrian hainbat hondamendi sortu zituen jauntxo bati». Liburuaren egileek ere hartu zuten hitza. Totonok aipatu zuenez, «lan hau baserri-tarrek egin dute, beraien etxeetako ateak zabaldu baitizkigute». Eta Rosak aipamen berezia egin zien baserrietako emakumeei: «beraiek baitira zapata eta txokolate kutxetan argazkiak gorde dituztenak». Mikel Zubietak prestatutako ikusentzuteko ederra ere erakutsi zuten. Liburua kiosko eta ohiko dendetan salgai dago.



LESAKA

GIZARTEA → LAIKOTASUNA

Ezkontza eta hileta zibilen ordenantza onartu du Udalak

Hasierako onespina eman zaio ahobatez eta hilabeteko epea izanen da herritarrek oharrak egiteko

Aitor AROTZENA

Ezkontza zibilak eta hildakoen aldeko agurak edo omenaldi zibilak arautzeko ordenantza hasierako onespina ahobatez onartu du Udalak. Ordenantza horijendaurrean erparatu da, herritarrek eta legalki interesa dutenek espedientea aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak egin ahal ditzaten.

Ordenantzaren arabera, estatu laiko eta ez konfesional batean, erakunde publikoek herritarren askatasun ideologiko eta erlijiosoak bermatu behar dituzte.

Horregatik eta gaur egun gizartearen kultur aniztasuna eta erlijioa kontuan harturik, beharrezkotzat jo dute udalitik ezkontza zein hile-

ta edo omenaldi zibilak egiteko aukera ematea. Pertsona bakoitzak aukeraturako bizimodua errespetatu behar dela erran dute.

Belar artifiziala aldatuko da futbol zelaian

Beti Gazte elkarteak Mastegiko belar artifiziala aldatzeko asmotan dago, egoera txar xamarrean baitago. Berrez, hamar bat urteko biziraupena izaten du belar honek eta heldu den urtean 15 urte beteko dira zelaia inauguratu zenetik. Espainiako Futbol Federazioak lan hori diruz lagunduko du eta trukean, Federazio horren eta Nafarroako Futbol Federazioaren kirol lehiaketak eta ekintza ofizialak Mastegin egiten uzteko baimena eman dio ahobatez Udalak hamar urterako. Hala ere, lehiaketa ez-ofizialak direlarik, hala nola federatutako taldeen entrenamenduak, ikastaroak, kirol-gaitzeak eta gisa-koak, Udalak jaso ahal izanen du haien esku jartzen diren zerbitzuak



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Arkupe emakumezkoen paleta txapelketa Lizarrara

Arkupe pilotazale elkarteak antolatutako emakumezkoen paleta txapelketako finala jokatu zen urriaren 22an eta Lizarrako Mertxe eta Susana 30-26 nagusitu zitzaizen Hernaniko Goikoetxea eta Arrietari, partida gogor baten ondotik. Hirugarren pisurako lehian, Aurora Sanz lesakarrak eta Edurne Argain iruditarrak 30 eta 19 irabazi zieten Irasustebarrera eta Semper irundarrei. Azken partidaren ondotik, sari baneketen txanda izan zen. Begoña Taberna frontoiko ostatuko arduradunak, Justo Agirretxe antolatzaileak eta Santiago Oiartzabal Arkupe elkarteak presidentek banatu zituzten sari ederrak.

erabiltzeagatik kostu zehatza.

'Beee Eguna' azaroaren 12an

Euskal Herriko bertso eskolen topaketak azaroaren 12an ospatuko dira herrian. *Beeeee Eguna* izenburupean egingen den ospakizunaren egitaraua 11:30ean hasiko da, partaideak Arrano ostatuan elkartzean. Eguerdian bertso poteoa egingen da, Unai Gaztelumendi, Xumai Murua, Izar Mendiguren, Eneitz Zabaleta, Maddi Ane Txoperena, Josu Sanjurjo, Eneko Abasolo *Abarkas* eta Iñaki Alemanen parte hartzearekin.

14:00etan bazkaria izanen da Linddurren-

borda sagardotegian eta bazkalondoa bertso jarriak eta sorpresak izanen dira Baztango helduen bertso-eskola, Jon Martin, Iñaki Gurrutxaga, Ander Lizarralde eta Unai Muñoa, Zarauzko bertso eskola, Aitor Sarriegi, Iñaki Viñaspere, Enaitz Alustiza, Ander Solozabal eta Ekaitz Samaniegoren eskutik. 19:00etan batbateko saioa eskainiko dute Zialdoan Alaia Martin, Xabier Silveira, Iratxe Ibarra eta Julen Zelaieta bertsolariek, Egoitz Aizpuru eta Iker Iriarte gai-jartzaileen erranetara. 22:00etatik aitzinera, Atxaspi ostatuan Oskar Estangarekin dantza eta kantua izanen da.

Herrialde ezberdineta-


ko helduen bertso-eskolen artean harremanak egitea eta elkarrekin bertsoaz, festaz, lagun taldeaz gozatzea izan dira Topaketa hau sorrarazi duten motibok, Bertso Eskolatik jakinarazi dutenez.

Haurrendako argazki tailerra

Hilaren 17an, ortzegun arratsaldean, haurrendako argazki tailerra antolatu du Udalak liburutegian.

Santa Zezilia Eguna

Musikarien Eguna hurbiltzen ari dela eta, azaroaren 19an, larunbatarekin, herriko musika taldeek hainbat kontzertu eskainiko dituzte herrian barna.



GIZARTEA → EHIZA SASOIA

Denboraldi honetan 64 dozena uso harrapatu dituzte orain arte

Kopuru honekin lehengo urtean harrapatutakoa berdindu dute

Irune eta Itsaso

Joan den urriaren 21ean, 21 dozena uso harrapatu ondotik, lehengo urtean harrapatutako kopurura iristea lortu da, 64 dozena. Kontuan hartu behar da oraindik ere sasoiak akabatzeko aunitz falta dela eta usazeak oraindik dozena gehiago harrapatuko dituzten itxaropenarekin dau-de. Bisita gidatuei dago-

kionez, Laura Elizagoienek erran du oraingo 150 bisitari inguru pasatu direla usategietatik eta sasoiaren akaberan lehengo urteko bisitari kopurura iristea espero da.

Etxalarko gasna Lurraren Egunean saritua

Jose txo Ariztegiren gasnak bigarren saria lortu zuen Berako Lurraren Egunean egiten den gasna lehiaketan. Zorionak Jose txo eta segi ezazu orain arte bezain gasna onak egiten!



ARGAZKIA: LAURA ELIZAGOIEN

Aurtengo ehiza denboraldian usoak biltzen.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Kultur Egunak

Aurtengo kultur egunak ere giro politoan joan dira. Urriaren 7an hasi ziren malabare tailerrarekin eta haurren partehartze haundia izan zen. Urriaren 14an, Aire ahizpen kontzertu arrakastatsuak ikusle franko bildu zuen elizara. Jendearen gustukoa izan zen kantaldia; baita ondotik izan zen kontzertua ere. Urriaren 21eko Irungo txistularien bandaren emanaldiak eman zion akabera Kultur Egunei. Landagain eskolako haur eta gurasoekin Kultur Etxe gaina bete bete egin zen. Berez, bertso afaria izanzen litzateke Kultur Egunei akabera emanen liokena, baino partehartze eskasagatik bigarren urtez segidan bertan behera gelditu zen. Sanjurjo, loar, eta Terre ziren Lesakatik aritzekoak eta Luze, Zili eta Gorostarzu Leitzatik. Udaberriari begira Euskara Batzordea ekitaldi gehiago prestatzen ari da.

okaNea
HARATEGIA / URDAITEGIA
Tfno/Fax: 948 630 018 | Kautontzenari 12 • BERA

ANSONEA
Eguneko menua
Menu vegetarianoa
Menu makrobiotikoa
Plater konbinatuak
Bakatak • Errezinak
Tfno: 948 631 144
Berako 2000, 11. ESKA

zalain
RESTAURANTE
Zalain autza z/g
31780 Bera
T. 948 631 106
www.zalain.com

MARTIKO
Martikorekin
zu zeu
sukaldari.
DENDA
ORDUTEGIA
ASTEZEHENETIK
OSTEGORARAKA
08:00etatik
17:00etara

ARANTZA

KULTUR EGUNAK → BASERRITARREN EGUNA

Tuanekobordako Marixol Almandozek irabazi du Gazta Lehiaketa

Hamalau gazta aurkeztu dira Baserritarren Egunean

Nerea ALTZURI

Udazkeneko Kultur egunak hagitz ongi joan dira. Aroarekin ezin kexatu ez eta partehartzearekin ere. Azaroaren lehenan, euri zaparradak eta trumoi eta tximista hotzak izan baziren ere goizaldean, eguerdirako ateri mantendu zen eta horrek bisitari uholdea animatu zuen gure herrira. Ekaitza Elkartek hamaigarren aldiz antolatutako Baserritarren Eguna arrakastatsua eta partehartzailea izan da. Merkatu itxurako frontoi sarrera eta barrena erakargarria zegoen zinez. Bertako produktuen erakusleihen koloretsua ikus zitekeen eta nahi zuenarentzat etxera produkturen bat eramateko aukera ere eskaini zen.

Gutzira, 24 postu paratu ziren eta dozenakaazienda, sei etxeetatik ekarriak. Hortaz gainera, iaz bezala, poneykin hainbat haur paseoa ibili zen plazan.

Zazpigarren gazta lehiaketan, herriko hamalau gazta-egilek parte hartu zuten eta goi mailako ardi gaztak izan omen dira aurtengo Kultur Egunean. Zazpigarren gazta lehiaketan, herriko hamalau gazta-egilek parte hartu zuten eta goi mailako ardi gaztak izan omen dira aurtengo Kultur Egunean.

Bertalde, Ekaitza Elkarteen orde, Guraso Elkartek ostatu jarri zuen, diru beharrean baitago eta Gurasoek Ekaitza Elkarteari eskerrak eman nahi dizkiote.

BERTSOAK, HAURRAK ETA LANDARE KONTUAK
Euskara Batzordeak an-



ARGAZKIAK: NEREA ALTZURI

Giro ederrean joan dira partehartzaileak izan diren aurtengo Kultur Egunak.

tolatuta, bertze hainbat ekintzek ere harrera ona izan dute. Urriaren 29an, bertso afaria izan zen Ekaitza Elkartean Onintza Enbeita eta Oskar Estangarekin eta giro ederra sortu zen. Urriaren 31n, bizpahiru orduz haurrek libesio ederra izan zuten. Eskertzekoa da Guraso Elkartean lana, eta bereziki guraso batzuek zuzenki izan zuten partehartzea: Roxa Maiz, Amaia Telletxea, Maixe Oskoz...

Hasteko, Roxakipuin bat kontatu zuen; ondotik, Amaiak Aintzane Pikabearen txistu eta trikiti doinuen laguntzaz, haurrak kantuan eta dantzan jarri zituen; eta azkenik, Maixek haurkuadril ederrari aurpegiak margotu zizkion. Herri kirolak eta jokoak egiteko eta zezenaren aitzinean lasterka aritzeko aukera ere izan zen. Arratsaldeari akabera emateko, txokolatetako pasteekin hartu zuten.

Egun berean hogei bat lagun Jagoba Errekondoren hitzaldira hurbildu ziren eta bi ordu pasatxoko solasaldia aski interesgarria izan zen.

Arantzako gaztak sarituak Beran

Berako Lurraren Egunean egindako gazta lehiaketan Serorinbordako Margari Madariagak eta Ximonenbordako Loli Mutuberriak lehenengo eta hirugarren sariak hartu zituzten. Zorionak!



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Herritarrak ere hezkuntza publikoaren murrizketen kontra

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza publikoan egin dituen murrizketen kontra eta hezkuntza publikoaren alde, manifestazioa egin zen urriaren 22an Iruñean eta herriatik 30 bat irakasle, guraso eta neska-mutiko joan ziren harat, irakas-kuntza ez dela gastua, inbertsioa dela adieraztera.

EUSKARA → LEHENDABIZIKO ALDIA DA

Sei lagun hasi dira euskara ikasteko klaseetan

Astean bi aldiz bilduko dira Doneztebetik etorritako irakaslearekin

TTIPI-TTAPA

Euskara ikasi nahi duten sei lagunek euskara klaseak hasi dituzte. Zehazki, joan den ortzeguneari hasi ziren klaseak eta astean bi aldiz biltzen dira, asteartero eta ortzegunero, 19:30etik 21:30era. Horretarako Doneztebetik etortzen da irakaslea.

Izena eman duten guztiak herrian bizi dira, batzuk euskara gutti erabiltzen dutenak di-

ra eta kanpotik etorri direnak bertzeak.

Aipatzekoa da Igantzin horrelako zerbait egiten lehenbiziko aldia dela.

Euskaraz irakurri eta idazteko zailtasunak dituztenentzako alfabetatze ikastaroa eskaintzeko proposamena ere egin zen baina hau ez da aitzinera atera.

Ziberra azaroan zabalik

Uda sasoian itxita egon ondotik, ziberrak berriz zabalduko dituzte ateak azaroan. Gainera, ordenagailuez gain, bertzelako erabilpenak ematea da Udalaren asmoa.



ARGAZKIA: IGANTZIKO ESKOLA

Egitasmo ugari eskolan ikasturte hasieratik

Joan den urteko planekin jarraituko dute aurten ere eskolan. Dagoeneko baratze ekologikotik artaburuak bildu dituzte eta konposta sortzen ere segitzen dute. Asta makilak Udalak duen arbaztak xehatzeko makinarekin puskatu eta konpost makinan sartu dituzte eta hortik lortzen duten konposta baratzerako ongarri gisa erabiliko dute. Jantokian eta ikasleek ekartzen dituzten jakietatik sortzen diren hondakin organikoak ere horrat botatzen dituzte. Eta konposta idortzeko, eskolako ikasle baten aitak ekarritako zerrautsa botatzen dute. Eskolakoek kontatu digutenez, artaburuak idortzeko gela batean zabaldu dituzte eta laster aitatxi edo amatxi batek erakutsita, artaburuak aletuko dituzte neska-mutikoek. Arto ale horiek, berriz, Guraso Elkarteak eta eskolak antolatuko dituen zinema saioetarako krispetak egiteko erabiliko dira. Horrez gain, baratzean orain hamalau kalabaza gelditzen dira, jantokian jateko edo jangelan gelditzen ez diren ikasleen artean banatzeko erabiliko direnak. Dena bildutakoan, berriz lurrari buelta eman, ongarria bota eta landare berriak landatzeko asmoa dute. Bertzetik, joan den azaroaren 4an paratu zuten liburutegia martxan, eta yoga eta margotze klaseak ere hasiak dira, emozio hezkuntzako saioekin batera. Aurten, berrikuntza gisa, gurasoendako *Emozio Hezkuntza Familian* izeneko 20 orduko ikastaroa ere prestatzen ari dira. Bortzirietako gurasoentzat izanen da eta parte hartu nahi duenak eskolara dei dezake.



Martzutzak berriaren inaugurazioa

♥ OSPATU GUREKIN: ♥

Azaroan

-%10

inaugurazioagatik



ko bezeroek
gehiago dute
2+2= %4
gehiago puntuetan

HELBIDE BERRIA: Bidasoa, 12 | BERA • 948 631 425

ORDUTEGI BERRIA: Astelehena: 10:00-13:00 | 16:00-20:00 • Larunbata: 10:00-13:00

Astearte, asteazkena, osteguna eta ostirala: 10:00-13:00 | 17:00-20:00

SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → MALERREKA ETA BERTIZARANA

Eskola ttikiak bizirik daudela aldarrikatu dute sei eskolek topaketan

Hainbat jarduera egin dituzte neska-mutikoek

Maidar PETRIRENA

Iragarri bezala, Malerreka eta Bertizaranako sei herrietako eskolen topaketa egin zen urriaren 28an Sunbillan. Gisa honetara, eskola ttikiak bizirik daudela aldarrikatu nahi izan zuten. Eguna primeran joan zen eta ikasle batzuek kontatu digutenez, hagitzen zuten eguna.

Frontoian margotzeko tailerra, aurpegiak margotu, globoekin irudiak egin eta Kulkiren eskutik jolasteko aukera izan zuten eta udaletxean filmak. Txokolate goxo batekin akitu zuten festa. Aipatu, bertsoa ere prestatu zutela: *Joku topaketak / ospatzen dugu Malerrekako herriak / Sal-dias, Labaien / Legasa, Ituren, Narbarte eta Sunbilla / ozenki errateko / es-*

kola txikiak bizirik daudela / ez baita herririk / eskola gabarik / ez eta geroririk. / Defendatu dezagun / Herri euskaldun! / Gu gara txapeldun!

Ea hurrengo urtean ere berriro elkartzeko aukera duten.

Dantza ikastaroa

Urriaren 1ean egin zen dantza jaialdiarekin hila-beteko atsedena egin dute haur dantzariak eta azaroaren 3an berriz ere ikasturte berria hasi zuten. Ortzegunero udaletxeko gelan 16:00etatik 16:45era haundiak elkartzen dira eta 16:45etik 17:15era ttikiak.

Mendi irteerak

Ulibeltzak Mendi Taldeak San Pedro-Donostia ateraldia antolatu du igande honetarako, azaroak 13. 08:00etan aterako dira plazatik. Eta azaroaren 27an Atxurira joanen dira, 07:30ean plazatik abiatuta.



ARGAZKIAK: AMAIA ARRETXEA

Giro ederrean pasatu zuten eguna sei herrietako eskoletako kideek.



ARGAZKIA: RUBEN IRIGOIEN/ MAIDAR PETRIRENA

Onddo ederrak gure bazterretan

Ikusia dago Sunbillan onddo eder eta politak badaudela. Ezkerreko argazkian Egoi Irigoien Arretxea ageri da bere atautxi Pedrok bildutako 1,9 kiloko onddoa eskuetan duela. Bertze argazkiko onddoak Migel Antzizarrek bilduak dira eta argazkian bere iloba Naroa ageri da, honen lagun Iraide eta Garainerekin.

Hauteskundeetako mahaia

Azaroaren 20ko hauteskundeetan hauei to-

katu zaie mahaian egoitea: mahaiburua Haizea Destribats Yañez izanen da, lehenbiziko mahaiki-

dea Maria Luisa Arretxea Sagardia eta bigarrena Maria Victoria Jaimere-na Etxebere.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. - Fax: 948 63 10 27

ikusi-makusi

www.ikusi-makusi.net

Lehiaketaren oinarriak eta informazio guztia: www.facebook.com/ikusi-makusi-livn

ORDUTEGIA: astelehenetik ostirarte 10:00-13:30 | 14:30-20:00
Kolon Pasadaleku - Ederra Erakina | 20303 IRUN | 943 612 383

KIROLA → URTEKO GASTUEI AURRE EGITEKO

Inoiz baino sari potoloagoekin osatu du Erreka Elkartek Eguberrietako saskia

Txartelak denda
eta ostatu
gehienetan eros
daitezke

en ibilaldia Leurtza
Abenturaren eskutik, ar-
doa, likoreak...

Zozketa abenduaren 17an izanen da.

SENIORREN BABESLEA

Mariezkurrena erai-
kuntza enpresa izanen
da denboraldi honetan
Errekako talde seniorra-
ren babesle nagusia. El-
kartetik eskerrak eman
nahi izan dizkiote eman-
dako laguntzagatik.

NAFARROAKO SELEKZIOAREKIN

Errekako hainbat jokalaririk dabilta Nafarroako Eskubaloiko Selekzioarekin entrenatzen. Infan-

ΤΤΙΡΙ-ΤΤΑΡΑ

Urtero bezala, Erreka Kirol Elkarteak Egu-berrietako saski parega-bea osatu du urtean zehar egiten dituen jardue-
rak finantzatzeko eta txartelak herriko denda eta ostatu gehienetan paratu ditu salgai.

Aurtengoa «inoiz baino potenteagoa» dela adierazi dute elkartetik, izan ere, gauza berriak sartu dituzte: Port Aventuran asteburu bat bi pertsonendako, ordenagailua (mahaikoa edo portatila, aukeratzeko), mendi bizikleta, telebista DVDarekin, Elgorriagako bainuetxean bi pertsonendako bonoa bazkaria barne, segway-



ARGAZKIA: EL REMONTE.BLOGSPOT.COM

Hiru herritar Binakako Erremonte Txapelketan

Julen San Migelek ez du Binakako Erremonte Txapelketa jokatu. Berak hartutako erabakia izan da, duela hilabete inguru belaunetik ebakuntza egin ziotelako eta txapelketa jokatzeko %100ean ez dagoela iritzita. Jokatzea «gehiegi arriskatzea» litzatekeela azaldu du. Baina badira txapelketan izanen diren herritarrak: Ezkurra (binakako txapeldun 1994, 1999 eta 2007an), Etxeberria III.a (2010ean binakako txapeldun) eta Lizaso (2007an binakako txapeldun). Xanti Uterga lehiatik kanpo gelditu da. Bera zen San Migelekin bikotea osatzeko hautagaia, baina San Migelek ez duenez jokatu, Uterga ere ari gabe geldituko da. Txapelketako ber- te erremontistak Urrutia saldiastarra (2005ean txapeldun), Urtasun iruritarra, Aiz- purua II.a, Zeberio II.a, Ion, Juaristi, Urriza, Aquirrezabala eta Matxin III.a dira.

tiletan, erraterako, Mikel Lana, Julen Inda, Mario Lopez, Oier Berasategi eta Andres eta Karlos Ostiz dabilta. Kadeteetan, berriz, Iñigo Oskoz eta Jabier Apeztegia.

ta, Pello Añorga ipuin kontalariak emanaldia eskainiko du liburutegian. Azaroaren 23an iza-

nen da, 17:00etan, eta
Gerlari haun-
dia kontatu-
ko du.



Ba al zenekien...

Urriaren 24an 77,6 kilometro orduko abiadura hartu zuela haizeak Donezteben? Hala bildu zuen estazio meteorologiko automatikoak. Urriaren 26an 73,5 kilometro orduko abiadura neurtu zen eta azaroaren 2an 64 kilometro ordukoak.

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukook eta fatxadak
tel. 666 235 466

[illegible]



HARBIZTI

Bidasoa Bizi **SUNBILLA**

PISUAK • GANBARAK
GARAJEAK • LOKALAK

Informazioa eta salmenta

607 946 785 • 948 109 818

BELURRA

Promociones y Construcciones, SL

www.vivirenbidasoa.com





aterpe
 energia | servizi | acqua

T. 940 834 179
 ARANITZA
www.aranitza.net

ITUREN

HEZKUNTZA → GREBA EGUNA PULUNPA ESKOLAN

Zazpi irakasleetatik lauk greba egin eta hiruk zerbitzu minimoa eskaini dute

Iruñeko manifestazioan ere izan dira irakasle, guraso eta ikasleak

Arkaitz MINDEGIA

Nafarroako Hezkuntza Departamentuak egin nahi dituen murrizketen harira, Nafarroako eskola eta institutuetako irakasle, ikasle eta gurasoak Iruñean bildu ziren urriaren 22an, sindikatuak deitutako manifestazioarekin bat egin ez. Gure eskualdekoak ere hantxe zeuden, baita Iturengo Pulunpa eskolako irakasle, ikasle eta gurasoak ere. Malerrekako eskola ttiki guztiak elkarturik pankarta baten gibelean ibili ziren.

Bertzalde, urriaren 27rako greba deitua zegoen ikastetxe publiko guztietan eta Pulunpa eskolan, guraso batzuek grebarekin bat egin eta ez zituzten eskolara eraman ikasleak. Irakasleei dagokienez,

zazpitik lauk greba egin zuten eta hiruk guttieneko zerbitzua eskaini zuten.

Eskola ttikien topaketa

Pasatu berria da Malerrekako eta Bertizaranako eskola ttikien aurtengo topaketa. Urriaren 28an ospatu zuten, bigarren aldiz Sunbillan. Pulunpa eskolako ikasle eta irakasleak han izan

ziren, eta bertze eskoletako haur eta irakasleekin egun osoan gisa guztietako ekitaldietan parte hartu zuten: herri kirolak, tailerrak, filmak... Ederki pasatu zuten.

Ander Erasun

Ander Erasun aizkolari gazte aurtiztarrak aizkora saioak izanen ditu heldu diren bi asteburuetan. Aurtizko bestetan, San Martin

Egunean, Zalduaren aurka ariko da eta Donztebeko ferietan egingen den Nafarroako Aizkolari Txapelketako finalean ere parte hartuko du. Finalari dagokionez, borts aizkolarien artean bera dugu gazteena, baina indarrean dator. Zortetik hobere-na opa diogu.

Aurtizko bestak

Aurreko TTUPI-TTAPAN,

Aurtizko bestetako egi-taraua agertu zen, eta bizpahiru kontu aipatzeko gelditu ziren. Alde batetik, ortziraletan, San Martin Egunean, rock kontzertuak antolatuta dira Barniz por la nariz eta Sutan taldeekin eta ondotik, bestak segitzeko, akordeoi doinuak izanen dira. Bertzalde, Iturengo dantzarien saioa igande goizean izanen zela erran zen, baina aldaketak daude. Goizean, Koia-ne Txikia frontoian pilota partidak izanen dira eta beste amaiera emateko Iturengo dantzarien emanaldia. Zopetarako apuntatzeko, berriz, 603 530860ra deitu behar da.

Maika Ariztegi

Indartsu ageri da Maika Ariztegi. Emakumezkoen Euskal Herriko Koxkor Biltze Txapelketa irabazi ondotik, urriaren 22an Beran egin zen Lizuniagako Igoe-ran bera izan zen emakumezkoen bizkorrena. Zorionak berriro ere.



UTZITAKO ARGAZKIA

Hauteskundeetarako prest

Azaroaren 20an egingen diren udal hauteskundeetarako Bilduk aurkeztu du taldea. Mari Jose Bereau zerrendaburuari eta taldeko gainerakoei babesa emateko argazkian ageri den herritar kuadrilla elkartu zen duela gutti.

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
948 630 763 - Altzaia, 17 - BERA

F. LANCHAS
Akupuntura eta hermatizazioa
Parkes eta parkes flutetazioa
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 755 - M: 607 406 781

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merdi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezaburuen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorpenak
- Etiberritasun eta jarduera espedienteak
- Bidegarritasun planak eta sumakotutak

www.artekari.com

ISSAKA: Siltzio, 77. behe - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BURLEATA: La Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

KIROLA → FUTBOL-ZELAI BERRIA DONEZTEBEN

Ainhoa Larreak sartu du Doneztebeko futbol-zelai berriko lehenbiziko gola

Sei dira Doneztebe Futbol Taldean ari diren herritarrak

an ari den herritar bakarra. Sei dira guztira: Ainhoa Larrea, Olaia Loiar-te, Olatz Baleztena, Milder Leizeaga, Bingen Larrea eta Mikele Etxekolonea.

Fermin ETXEKOLONEA

Urriaren 22an jokatu ziren Donezteben egin den futbol-zelai berrian lehenbiziko partidak eta Ainhoa Larrea herritarra izan zen futbol-zelaia gol batekin estreinatu zue-na, berea izan baitzen zelaiko lehenbiziko gol ofiziala. Bere gola historiara pasatuko da eta le-
rro hauen bidez, zorio-nak eman nahi dizkiogu.

Larrea, ordea, ez da Doneztebe Futbol Talde-

Aldaketak Gazte gunean

Orain arte Eva Elizalde izan da Gazte gune-ko arduraduna, baina ikastaro bat tarteko, utzi egin du eta bere ordez, Miriam Perez del Olmo beratarra sartu da. Bi hilabeteko kontratua izanen du.

Hauteskundeetako mahaia

Azaroaren 20ko hauteskundeetan hauek



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Neska-mutikoak errota inguruan

Urriaren 12an talo tailerra egin zuten neska-mutikoek, Euskararen Egunean sobratu zen irina aprobetxatuz. Horrez gain, Euskararen Egunean eguraldi txarragatik errotako buelta egin gabe gelditu zen eta orduko partez, urriaren 12an egin zuten Edorta errotazainarekin. Gustura ibili ziren haurrak.

egonen dira mahaian. Mahai-burua Arantxa Mariezkurrena izanen da eta bokalak Ana Mari Mugika eta Joxemari Mitxelena.

Ordutegi berria errotan

Errotako langileek oporrak har ditzaten, or-

dutegi berria izanen da azaroaren 20ra arte. As-telehenetik ostegunera itxita egonen da; ostira-letan 11:00etatik 13:00-etara zabalduko dute eta larunbat, igande eta jaiegunetan 11:00etatik 14:00etara eta 16:00-etatik 18:00etara ego-nen da zabalik. Astez

talderen bat etorri-ge-ro ere, irekiko dute.

Hilberria

88 urterekin, urriaren 26an hil zen Francisca Etxeberria. Azken aldian Donezteben bizi bazen ere, urte askoz hemen bi-zitu zen eta lerro hauen bidez doluminak senideei.

expert **BORTZIRIAK**

%20
DESKONTUA
SUKALDE
ALTZARIETAN

Bidasoa, 45 - 31780 Bera - 948 630377 - 948 631091 - info@bortziriak.com - www.bortziriak.com

EZKURRA

EKONOMIA → OBRA BERRIAK

Eraikuntza sektoreak ez du krisi handirik somatu gure herrian

Azken aldian hainbat obra egin eta egiten ari dira

Fernando ETXEBERRIA

Krisi ekonomiko orokor honek bereziki eraikuntza sektorean izan du eragina, baina Ezkurran normaltasunez segitzen duen jarduera da. Orain dela gutxi Matxonea lehenengo landa-etxeke obrak bukatu ziren eta lanean hasteko Nafarroako Gobernuaren baimena ere badu.

Bestalde, Barranka ostatuan obran ari dira. Dagoeneko aterpe berria erabiltzen hasiak dira eta bazkaltzera joaten

direnendako oso toki atsegina da. Lehenengo solairua Josebarendako etxebizitza gisa jartzeko egokitzen ere ari dira, gurasoen bidea segitzeko asmoa baitu. Eta poztekoa da, bai herritarrendako eta bai bisitariendako ere, are gehiago, ia egunero ostalaritzako enpresak ixten ari direla entzuten den garaian.

Eraikin ederra da eta bere garaian Ispillea deitua zen. Jose Luisen aitona eskualdera etorri eta lokala zabaldu zuenean hartu zuen Barranka izena, 1909. urtean.

Jose Mari Gogortza Txumaren etxebizitza berria ere inauguratzear egonen dira, berak eta Ezkain eraikuntza enpre-

sako kideek eginga.

Berriki, Martin Mariezkurren txabola edo borda bat ere eraiki du Ameztia alderdian, inguruko zelaietan dituen azindak horra biltzeko. Gisa honetara, lehendik zegoen eta egoera kaxkarran zegoena ordezkatu du.

Ezkurrako etxe, baserri eta borden argazkiak biltzen dituen liburuan herrian izan diren 79 borden argazkiak ageri dira, eta hori, garai batean etxe guztiek borda zutenaren erakusle da.

Gainera, udal artxibotan ageri denez, bere garaian 7.000 ardi baziren herrian. Gaur egun, herritar bakarra da abeltzaintzara soilik dedika-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Goitik behera, Barranka ostatuko aterpea, Jose Mari Gogortzak egin duen etxea eta Martin Mariezkurrenaren txabola.

tzen dena. Bertze zazpi erretiratutako ardi batzuek ere badituzte, baina Gobernuaren dirulaguntza jasotzen dutelako.

Orain dela urte gutxi, herritar batek ermita ondoan borda bat ere eraiki zuen, eta bere familiak ardiak gordetzeko erabiltzen du.

Heriotza

Urriaren 18an Juan Zestau hil zen, Plaxe izen goitiarekin ezaguna, Plazenea Bordan bizi zela. Duela urte asko erretiratu eta emaztearekin bizi zen eta seme-alabak ere bazituen. Lerro hauen bidez, doluminak fametia guztiari.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Familiako ospakizunak

Azken urteotako ohiturari eutsiz, urriaren 22an bi familietako kideak bildu ziren Barranka ostatuan. Zestau-Gogortza familiak Juan Zestau izan zuen gogoan eta Mariezkurrena-Hernandorena familiak Eulalia.



MALERREKA

EUSKARA → 'EUSKARAZ JAN NAHI DUT' KANPAINA

Menuetan euskarak presentzia egokia izan dezan kanpaina abiatu du Euskara Batzordeak

Helburua lehentasuna euskarari ematea da

TTIPI-TTAPA

Malerekako Euskara Batzordeak, Kontseilua- rekin elkarlanean, *Euska- raz jan nahi dut* kanpai- na paratu du martxan, jatetxeetako hizkuntza paisaian urratsak ema- teko asmoz, euskarak menuetan presentzia egokia izan dezan.

«Euskararen norma- lizazioa erdiesteko ezin- bertzekoa da alor sozio- ekonomikoan eragitea euskara zerbitzu hizkun- tza izatera ailegatzeko», azaldu dute Euskara Zer-

bitzutik eta gaineratu du- te, «zerbitzuak euskal- duntzeko hizkuntza pai- saia oinarritzko elemen- tua dela eta funtsezkoa dela horretan urratsak ematea». Gure kultura- ren parte garrantzitsu bat janaria eta jatea denez, jateko zerbitzua ematen duten jatetxe eta taber- nei menuak euskaratze- ko proposamena luzatu die Euskara Batzordeak.

Egitasmo honen bi- dez, alde batetik, Male- rrekako jatetxeetako me- nuak edo kartak azter- tuz euskararen presen- tzia ezagutu nahi izan da; gisa berean, *Euska- raz jan nahi dut* zabaldu nahi da, eta euskararen normalizazioaren bide- an, jatetxeetako menue-

tan urratsak ematea ere lortu nahi da, euskarari lehentasuna emanaz. Hala, menua gaztelania hutsean duenari, elebiz jartzea eskatuko zaio; menua elebiz duenari, zoriundu egingen zaie eta euskaraz nabarmenago jartzea eskatuko zaio eta menua euskara hutse- an duen jatetxea zorion- du egingen dute.

Helburu horiek bete- tze aldera, Malerrekan jateko zerbitzua eskain- tzen duten 30 establezi- menduei bisita egin zaie. Eta hori baino lehen, hiru aste iraun zituen girotze kanpaina bat antolatu zen, ondoko irudietan ageri diren karteekin. Malerekako herri guztie- tan paratu ziren.



GIZARTEA

BIDAIAK → 164 BAZKIDEK PARTE HARTU DUTE

Urteko azken bidaia Lizarra eta Lodosara egin du Arkupeak-ek

Urte bukaerako besta abenduaren 15ean izanen da

Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak elkarrean aurtengo azken bidaia Lizarrara eta Lodosara egingakoa izan da. Urria-

ren 20an egin zuten eta 164 lagunek parte hartu zuten.

Lizarran herriko erai- kin garrantzitsuenak ikusteko aukera izan zu- ten: autobus geltokia, El- gazena edo judutarren auzoa, San Pedro eliza, hamar komentu baino gehiagoren hondarrak, eta horien artean nabar-

ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA
Piperrak nola prestatzen dituzten ikusi ahal izan zuten Arkupeak-ekoek Lodosan.



mentzekoa, Santo Do- mingo deritzona, adine- koen egoitza bihurtua, eta horrekin batera, erai- kinik ezagunena: Puyko Andre Mariaren basilika.

Gehienek merkatuan geldialdia ere egin zuten, jantziren bat edo bertze erosi eta nekazaritza pro- duktuen postuetan barrena ibiliz.

Lodosan, kontserba fabrikako zuzendariak pi- perrak egosi ondotik, ontzi eta latetan nola prestatzen dituzten azal- du zuen. Bisitariek pro- duktuak dastatzeko au- kera izan zuten eta pipe- rrrak, zainzuriak edo or- buruak erosi zituztenak ere izan ziren. Fabrika hagitz haundia ez denez,

hiru taldetan banatuta egin ziren bisitak.

Bisitak bukatutako- an, Larion jatetxean baz- kaldu zuten eta 18:30 al- dera etxerako bidea har- tu zuten.

Hurrengo hitzordua abenduaren 15ean egi- nen dute Donezteben, urte bukaerako besta os- patzeko.

LEGASA

HEZKUNTZA → MURRIZKETAK SISTEMA PUBLIKOAN

Herriko eskola ere Gobernuak egin nahi dituen murrizketen kontra

Sindikatuak deitutako mobilizazioetan parte hartu dute eskolako ikasle, guraso eta irakasleek

TTIPI-TTAPA

Sindikatuak deituta, hainbat mobilizazio egin dira azken aldian Nafarroako ikastetxe publikoetan, Nafarroako Hezkuntza Departamentuak egin nahi dituen murrizketen kontra eta hezkun-

tza publikoaren defentsan. Bada, ekintza horietan Legasako eskolak ere parte hartu du.

Egindako kontzentrazio deialdietan, guraso, ikasle eta irakasleek bat egin zuten. Aipatu, bi lanuzte antolatu zirela. Lehenbiziko lanuztea urriaren 20an egin zen eta ordu batekoa izan zen eta bigarrena urriaren 25ean egindakoa izan zen. Hau, berriz, bi ordukoa izan zen. Horrez gain, urriaren 22an manifestazioa egin zen Iruñean eta akitzeko, urriaren 27an egun osoko greba egin zen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ikasle, irakasle eta gurasoek bat egin dute sindikatuak deituta murrizketen kontra urrian egin diren mobilizazioekin.

TTIPI TXARTELA
BETI IRABAZTEN DA!

553 - ALEKO IRABAZLEAK

- * ELACURRIBESKO ETXERUA OZKO FOSSEAN
Toko Txapinena (Bila) | TTIPI
- * AQUARIUM 2 SARRERA
Jose Luis Lizarri (e) El Correo | TTIPI
- * ELKAR 2 LIBURU
Vitor Jara / Berta Laiter / Doreenak & Miquel / TTIPI
- * LANKU GU TA GUTARRAK CO
Marta Gualdonza Garm / TTIPI
- * ONDOO TA PUNTO KANBETA
Adela Arriaga / TTIPI
- * PIRATX, PIRATX KETA
MARIBOTTS PIRATX DVD
Jose Miguel Muro / TTIPI

TTIPI SASKIA

PRODUTURAK
LANKU ARRAUTZAK
BILAKO, ARRAUTZAK
BILAKO ARRAUTZAK

DESKONTUAK

MASTERS LITTA
Marta

2 LIBURU
Berta Laiter

ANE PIRATA LIBURUA
Pirata, Pirata eta Pirata

KANBETA BAT
Marta

FANTXIKE
444. 444. 444. 444

GOIKO
444. 444. 444. 444

intzuri
444. 444. 444. 444

IPARLA
444. 444. 444. 444

IPINGI
444. 444. 444. 444

NAFARROA → BILDUKO PARLAMENTARIAK HERRIZ HERRI

Gobernuaren murrizketen inguruan eskualdeko herritarren iritziak jaso ditu Barea parlamentariak udaletxean

Bilduko parlamentaria Narbarten izan da

Martin BERTIZ

Nafarroako Gobernuak aurrekontuan egin nahi dituen murrizketen inguruan mintzatzeko, Nafarroako Bildu taldeko zazpi parlamentarik lantzaioak egin dituzte Nafarroako zazpi herritan, gizarte eragileen eta norbanakoen iritzi eta ekarpenak jaso bidenabar.

Urriaren 26an egin ziren bilerak han eta hemen, eta Baztan, Bortziriak, Malerreka eta Bertizaranari dagokiona Narbarteko udaletxean egin zen. Bilduko Biken-di Barea parlamentaria etorri zen, herritarren proposamenak jaso eta Bilduren aurrekontuen inguruko irakurketa egitera. Talde parlamentarioaren ustez, bertze aurrekontuak behar dira.

Ekimen honekin, Bilduk herritarren ahotsa Parlamentura eraman nahi du.



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Onddo golpe ederra

Herrian bada onddoetarako afizio ederra eta azkeneko astean onddo golpe polita izan da. Gustura ibiltzen da jendea mendian eta gainera, etxera saritxo gus-tagarri batekin bueltatuz gero, zoragarri. Argazkian herriko batek ekarritako onddo sorta ageri da. Ez zigun erran nahi izan non aurkitu zituen.



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Hilerriko aparkaleku berria

Ederki aprobetxatu zen Santu guztien egunean, hilerrian kontzejuak egin duen aparkaleku berria. Lanak kontzejuko zinegotzien eta Sasoi eskabazioen artean egin zituzten eta abuzturako bukatu ziren.





MERCHÉ
MODA HOMME
Siraño Muga, 11
20302 BILBAO
T. 943 612 626



CAPELETTI
BILBAO
Nicolás Markatzi Zantua
20302 BILBAO
T. 943 624672

GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → GAZTE ASANBLADAREN FESTA

Ttirriki ttarraka maldan gotti ailegatu da egun haundia

10:00etatik aurrera hainbat ekitaldi izanen dira

TTIPI-TTAPA

Dena prest dago, eguna ailegatzea baino ez da falta. Gazte Asanbladaren XX. urteurreneko festa haundia larunbat honetan, azaroak 12, ospatuko da eta aurretik iragarri bezala, egun osorako ekitaldiak prestatu dituzte.

- 10:00etatik aurrera argazki erakusketa: 20 urte iruditan.
- 11:00etan 20. urteurreneko graffitia.
- 12:00etan 20. urteurreneko argazkia.

- 13:00etan triki poteoa.
- 14:30ean herri bazkaria eta enkantea. Bazkarirako txartelak Amaia kafetegian eros daitezke, 12 eurotan.
- 18:00etan patxaranga, Goizuetako elektrotxaranga.
- 21:00etan ekitaldi nagusia.
- 22:00etan kontzertuak: Des Kontrol, Bongo Botrako, Esne Beltza eta 3gabe2. Kontzerturako sarrerak aurretik 10 eurotan eros daitezke eta egunean berean 12 eurotan.
- Eta gaztetxean DJ Bull gau osoan zehar.
- Horrez gain, autobusak, lotarako lekua eta ogitartekoak ere eskainiko dira. Leitzatik eta Hernanitik 18:30ean



ARGAZKIA: ALAITZ ESKUDERO

XX. urteurrenaren harira egun osoko festa prestatu dute Gazte Asanbladako kideek.

aterako da Goizueta-rako autobusa eta Goizuetatik 07:00etan izanen da itzulerako au-

tobusa Leitzara eta Hernanira. Bestalde, lotarako tokia nahi duenak eskolako fron-

toian bere kanpina paratzeko aukera ere izanen du 19:00etatik aurrera.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Larrialdi Agentziako zuzendariak bisita egin die suhiltzaileei

Jose M^a Vazquez Nafarroako Larrialdi Agentziako zuzendari berriak bisita egin zien urriaren 19an herriko suhiltzaileei. Eta berekin batera, hainbat ordezkari etorri ziren. Pablo Miranda alkateak eta herriko suhiltzaileek egin zieten harre-ra eta ondotik, denak elkarrekin Umore Ona Elkarteak bazkaldu zuten. Gaur egun hemezortzi suhiltzaile dira eta anbulantziekin beste sei dira. Horrez gain, anbulantziekin ibiltzeko ikastaroa egiten ari diren hamabi lagun ere badira, bi leitzarrek, beste bi aranoarrak eta zortzi goizuetarrak.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Ia kiloko onddoa!

Diotenez, udazken honetan ez omen da onddo askorik ageri. Baina batzuek izan dute biltzeko aukera eta ez nolanahikoak, gainera. Ana Mari Loiarte Lujanbiok, esaterako, ia kiloko alea aurkitu zuen urriaren 25ean, 860 gramokoa, zehazki. Otordu ederra egiteko onddoa, dudarik gabe!

OSPAKIZUNAK → URTEROKO OHITURARI EUTSIZ

Ekitaldi asko antolatu dira larunbat honetan San Martin eguna ospatzeko

Bi erakusketa, sendabelarren tertulia eta talo jatea izango dira

Maidar eta Ainhua

Azken urteetan bezala, San Martin eguna ospatuko da Aranon. Aurten, azaroaren 12an, larunbatean izango da hain zuzen.

Arratsalde beteko festa izaten da eta aurtengoan, Iñigo Olaziregiren *Euskal Herriko ugaztunen oinatzak* erakusketa egongo da udalletxeko ganbaran. Gure herriko hainbat ugaztunen oinatzak, ezaugarriak eta beraien bizilekuari buruzko informazioa emango da erakusketan.

Hala ere, beste erakusketa bat ere osatu

nahiko genuke urteroko moduan zuen laguntzarekin. Etxean dituzuen Aranori buruzko argazki zahar, polit edota kuriosoak atera kajoitik eta eraman Kontsejura ahalik eta azkarren. Zuen laguntza ezinbestekoa da!

Festarekin jarraituz, 18:00etan elkartean, herriko sendabelarren eta etxeko erremedioen inguruko tertulia dago antolatuta. Horretarako, herritarrek beraien etxe inguruetan dituzten sendabelarrak ekartzeko eskatu dute antolatzaileek. Honela, ahoz aho, jakintza eta tradizioa zabaldu nahi dituzte ohitura zaharrak ahazten utzi gabe. Gainera, Bordaxarko Kontxik eta Beltsoko-Bordako Maria Jesusek partas ukendua eta enplas-

to desberdinak egingo dituzte. Animatu zuen erremedio eta truku naturalak ezagutzera ematera!

Ilunabarrean, talo jatea egingo da urteroko moduan. Aurtengoan, ordea, arto-irina eta sagardoa herrikoak bertakoak izango dira, Ezkerren-Bordako Pellok eskainiak.

Hauteskundeak

Herri aierriz izango da Aranon azaroaren 20ko hauteskundeetan aurkeztuko den talde bakarra. Independenten taldea izanik, zerrendaburua aukeratzea hauteskunde ondoren egiten da gehienetan, hala ere, aranoarrei jakinarazi nahi diegu, Herri aierriz zerrendako burua, alkategaia, Ainhua Ansa izango dela. Ze-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Talo jateak ez du hutsik egingo aurtengo Sanmartinetan ere.

rendako kideen artean egokiera pertsonalik onena berak izan deza-

keela erabaki da zerrendako beste kideen artean.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERRA (SAN JOSE) | LESAMA | ELIZONDO (BAZTAN) | LETIZA | BETELU
DONIZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRLUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
LOREA, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

GIZARTEA → AUKERA BERDINAK LORTZEKO HELBURUZ

Curriculum bilketaren balorazio «oso positiboa» egin dute Bilgune Feministak eta LABek

Bildutako
curriculumak
Sarriopapelen
aurkeztu dira

TTPI-TPA

Sarriopapel lantegian
aurkezteko maiatzean
martxan jarritako emaku-
meen curriculum bilketar-
en balorazio posibioa
egin dute Bilgune Femi-
nistak eta LAB sindika-
tuak. Azaldu dutenez, bil-
ketak «argi erakutsi digu
herriko emakumeok he-
rrian egin nahi dugula lan».
50 curriculum inguru ja-
so eta ondotik zuzendarit-
zari entregatu zitzaizkien.

«Urteetako aldarrikapen eta lanak izan du emaitzarik», Bilgune Feminista eta LABen iritziz. Izan ere, 20 izan dira udan Sarrion egindako kontratuak eta hauetatik zazpi emakumeenak izan dira: «oso balorazio positiboa egiten dugu, herrian urteetan emakumeak diskriminatu dituen lantegian emakumeak kontratatu dituztelako». Halere, hutsuneak badaudela diote: kontratu erreleboetan, zehazki: «orain arte zazpi egin dira eta hauetatik bi soilik izan dira emakumeonak. Espero dugu urtea amaitzerako gehiagori egitea».



ARGAZKIA: PABLO FEO

130 espezieetako perretxikoak bildu dira Mikologialdian

Hego haizearen eta idortearen ondorioz ez da onddo eta perretxiko askorik ikusten udazken honetan mendietan. Halere, ALKE Kultur Taldeak antolatuta laugarren urtez egin da aurten Mikologialdia. Urriaren 19tik 23ra egindako ekimenak, azken egunean Karrapen jarritako erakusketarekin bukatu ziren eta idorteak idorte, 130 espezieetako onddo eta perretxikoak ikusteko aukera izan zen, herriko urmeekin egindako ateraldietan jasotako aleak, hain zuzen. Herritarrek bildutako ziza eta ondoak ere eraman zituzten plazara. Eskolako ikasleek margotutako eta plastilinez egindako irudiak jarri zituzten ikusgai. Eta aurtengo berrikuntza giara, Mikel Ibarreiki mikologiari buruz egindako lana proiektatu zuten karrapen.

Bitartean lanean segituko dutela adierazi dute: «leitzar guztiek eskubide eta aukera berdinak lortu arte: kalean zein lantegian». Azken honetan, langile batzordeak eskaera bat egin berri diko zuzendaritzari martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa-

ren arabera, 250 langileetatik gorako enpresetan, zehaztuta dagoen bezala, Berdintasun Plan bat egiteko eta honen jarri-penerako berdintasun batzorde bat sortzeko baliabideak jarri ditzan. Berdintasun Plana martxan jartzeko bitartekoak sor-

tzeeaskatu zaio, prozesu honetan langileen ordezkaritza egotea, Berdintasun Planaren aplikazioa lan hitzarmenean txertatzea eta kontratazioetarako irizpide gisa Europako Batasunean zehaztutako dagoen %60-40ko portzentalea erabiltzea.

Martí i Pol poeta kataluniar ospetsuaren liburu bat euskaratu du Joxemari Sestorainek

Joxemari Sestorain herritarrak poema-liburu bat argitaratu du Cenlit Denonartean argitaletxearen eskutik. Zehazki, Miquel Martí i Pol poeta kataluniar ospetsuaren *Estimada Marta* euskaratu du, *Marta Maitea* izenburupean. 2003an hil zen poeta hau oso ezaguna da, hainbat argitalpen egiteaz gain, sari andana jaso zituelako. Lluís Llachek ere bere poema asko musikatu izan ditu, baita Maria del Mar Bonet, Ramon Muntaner, Veneno, Teresa Rebull, Vidres a la Sang eta Paco Muñozek ere.

Duela 27 urte, *Maiatz* aldizkarian poeta honen poema batzuk argitaratu ziren Joseba Sarrionandiak itzuliak eta horiek izan ziren Sestorainek irakurri zituen kataluniararen lehen poema euskaratuak. «Literatura pixka bat begiratzen genuenontzat interesgarria izan zen», azaldu dio TTPI-TTAPari. Geroztik gehiago irakurri zituen. Orain dela 24-25 urte, *Estimada* Maza liburua erosi zuen eta 2009ko ilbeltzean, berriz,

liburua itzultzeari ekin zion. «Zergatik ez esperimentatu?», pentsatu omen zuen eta hala egin zuen. Urte hartan udarako itzulia omen zuen eta beste bi urte zuzentzen eta argitaletxe bila joan zaizkio: «poesia argitaratzea zaila da eta poesia itzulia argitaratzea ezinezkoa. Asko saiatu naiz argitaletxeekin», azaldu digu.

41 urterekin, poeta kataluniarrari esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten eta zazpi urte geroago hasi zen liburu hau idazten. «Liburu hau gaitzaldi horri buelta emateko garaian idatzia da, onarpen prozesu bat», argitu digu Sestorainek. Hitzurreaz gain, hiru poema-multzo ditu: *Urteurrenko zazpi poema*, *Su-burdina* eta *Marta Maita*. Sestorainek xehetasun gehiago eman dizkigu: «lehenbizikoan, ironiaz begiratzen dio pasatu duen sufrimendu edo prozesu horri, onartu egiten du. Zazpi poema dira lehenbizikoetan tristura nabarmena bada ere, gero gorako bidea hartzen du. Biga-



Joxemari Sestorain
Marta Maitea liburua
eskuetan duela.

rren poema saila ziklo bat da eta bere poetika ageri da. Hitzak zein garrantzitsuak diren esaten digu eta maitasunaren gaia azaltzen digu. Hirugarren partea sexu harreman baten istorioa da, hau ere ziklikoa».

Liburua azaroaren 22an aurkeztuko du jendaurrean, Iruñeko Auzolan liburu-dendan. 19:30etik aurrera errezitaldia egingen dute. Poemen katalunierazko bertsioa irakurriko da lehenbizi eta euskarazkoa gero.

UDALA → AZPIEGITURAK

Udaletxeko bulego berriak Euskararen Egunean inauguratu nahi dira

Erabilera anitzetako gela, harrerako bulegoa eta Interneteko gela egokitzen ari dira

Juana Mari SAIZAR

Udaletxearen gaineko lehen solairua osatzeko altzariak begiratzten ari da Udala, eta behin prest egonda, Euskararen Egunean inaugurazioa egitea pentsatua dago. Hala nola, zerbitzu anitzetako gela (hitzaldiak egiteko, ikastaroak emateko, taldeak biltzeko gunea...), alkatetzaren harrerako bulegoa eta interneteko gunea osatu nahi dira.

Hauteskundeetako mahaia

Azaroaren 20ko hauteskundeetarako ma-

haia osatuta dago jada. Urriaren 25ean egin zen zozketa eta hauek izango dira egun horretan mahaian egonen dire-

nak: Elisa Belaunzarán Mariezkurrena, Lourdes Belaunzarán Pellejero eta Jose Angel Alvarez Azpiroz.



ARGAZKIA: ANA GOÑI

Neska-mutikoak gaztain biltzen

Ohitura den bezala Guraso Elkarteak antolatuta, hainbat haur eta guraso gaztain biltzera joan ziren urriaren 26an. Udazkeneko hainbat fruitu ikusi eta urtaro aldaketaz jabetzeko aukera ere izan zuten txikiek. Lanaren ondoren meriendatzera eseri ziren atseden hartuz. Orain, beste data bat jarri beharko dute bildutakoa jateko.

LEITZA-GOIZUETA

Udal artxiboak digitalizatzeko subentzinoa jaso dute Leitzak eta Goizuetak

TTIPI-TTAPA

Udal artxiboak digitalizatu egin dituzte Goizuetan eta Leitzako udalek. Goizuetan, XVIII eta XX. mende arteko udal akten 40 liburu digitalizatu dira eta XIX. mende baino lehenagoko 29 liburu historiko ere bai. Eta Leitzan, XVIII eta XX. mende arteko udal akten 54 liburu digitalizatu dira. 18.096 euro kostatzen diren lan hauek baina Cederna Garalurrek kudeatutako Nafarroako Landa Garapeneko Programa, Leader 4 ardatza programatik 10.734,91 euro jasoko dira. El Corte Inglés informatika enpresa 2010ko urritik 2011ko otsailera arituz lanean.

LEITZA

KULTURA → OSPAKIZUNAK

Helduen bertso eskolaren 10. urteurrena ospatuko da hilaren 18an

Bertso desafioa izanen da Lesaka eta Leitzaren artean

TTIPI-TTAPA

Dagoeneko hamar urte igaro dira Leitzan helduen bertso eskola sortu zenetik, eta urteurren hori modu berezi-

an ospatzeko, festa antolatuta dute azaroaren 18rako, ostirala.

20:00etan elkartu eta bertso-poteoa izanen da, Julen Zelaieta eta bertso-eskolako ikasleekin. 22:30 aldera, berriaz, bertso-desafioa jotzeko dute Lesaka eta Leitzaren artean. Leitzako taldean, *Zili*, *Luz* eta *Etxeorde* ariko di-

ra eta Lesakakoean, loar Tainta, Xabier Terres eta Josu Sanjurjo.

Autobusa Goizuetara

Larunbatean, hilak 12, Goizuetan ospatuko den Gazte Asanbladaren urteurrenako festa delata, autousa jarri da Leitzatik. 18:30ean abiatuko da eta 07:00etan izanen da itzulera.

Mendibilen ateraldia

Larunbat honetan, azaroak 12, Aralartik barrena zeharkaldia antolatuta du Mendibil Mendi Taldeak, Lizarrustitik Larraitzera, eta tartean Txindoki igoz.

Joan nahi duenak Asitzen, Maimurren edo mendibilaurrera@hotmail.com-en eman behar du izena, ostegun

hau baino lehen. 07:30ean abiatuko da autobusa Oialde paretik.

Entrenamendu mentala hizpide

Entrenamendu mentalari buruzko ikastaroa emanen du Urko Arozennak larunbatean, azaroak 12, zinemaren. 09:00etatik 13:00etara izanen da.

DIRULAGUNTZAK → NAFARROAKO GOBERNUAK MURRIZKETAK EGIN DITU

Hasieran onartu baino subentzio ttikiagoa jasoko dute euskarazko hedabideek

ТТИПИ-ТТАРА

Nafarroako Gobernuaren murrizketek gizarterako hainbat alor uki-



Dirulaquntzaren bigarren zatian, %34ko murrizketa izanen du TTIPI-TTAPAK.

Euskarabideak esleitutako dirulaguntzak bi epetan ordaintzen ditu. Dirulaguntzaren erdia jakinarazpenarekin batera ematen du, eta ber- tze erdia gastua justifi-

katu ondotik. Hasierako zatia emana du baina oraindik egiteko dagoen bigarren ordainketan murritzeta eginen du. Honela, bigarren zatirako aurreikusia zegoen zatian, %34ko murritzeta izanen dute Belexe irriatiak, Mailope aldzkariak eta TTPI-TTAPA aldzkariak; Esan-Erran irriatiak %37ko murritzeta izanen du, baita Pulunpe aldzkariak ere:

Horren harira, «murrizketa horiek guztiek euskarazko hedabideok aurretik jasaten ari garen egoera ekonomiko larria areagotzen dutela» azpi-

Hedabideak euskararen ekosistema «mantentzeko, indartzeko eta biziberritzeko ezinbertzeko elementu bat» direla iritzita, Euskarabideari eta haren ardura-dun politikoei hori ahalbideratzeko, babesteko lan egitea exijitu diote Topaguneak eta Nafarroako euskarazko hedabideek. «Horregatik, esleitutako dirulaguntza bere osotasunean ematea exijitzen dugu», diote. «Aldi berean, sektoreko aktoreekin bildu, egokira aztertu eta etorkizunerako hitzarmen bat lantzea eskatzen dugu, Nafarroako Parlamentuak 2009an eskatu zuen moduan».

**PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!**
Barria arazi taldea

[illegible]

behetik

Enkolerak igoteta... ez da autopol
pialafornak
igogailu bereziak
autki bereziak...



Arangoak, I. 4 • T. 943 368 781 • 671 073 888
www.behetik.com

GIZARTEA → APUSTU ENERGETIKOA

Energia kontsumoa murrizteko kanpaina hasiko da ikastetxeetan

Udalaren eta CRANaren kanpaina ilbeltzean hasiko da

Maite OTEIZA

CRANA Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroa eta Udalak Apustu Energetikoaren kanpaina abiatuko dute, heldu den ilbeltzetik apirila bitartean.

Apustu honen bidez, Baztango ikastetxe guztiek, konpromisoa hartzen dute, ikastetxe-ko argia eta ordenagailuen erabilerarekin, energia aurrezteko, ingurumenaren zainketa ahalbidetuz.

Apustu honek gizarteko arlo guztietarako balilo du eta praktikan



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztango ikastetxeetako ordezkariak hezkuntza publikoaren alde

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza publikoan egin dituen murrizketen kontra eta eredu publikoaren alde, manifestazioa egin zen urriaren 22an Iruñean eta Baztango irakasle, guraso eta neska-mutikoak han izan ziren. Bertze mobilizazioekin ere bat egin dute Baztanen.



paratzea erraza da, kontzientzia hartzeko afara baita.

Seguru, helburua den artean lortuko dela!

Ba al zenekien...

Urriaren 24an 161,9 kilometro orduko abiadura hartu zuela haizeak Gorramendin? Urriaren 26an, berriz, 145,4 kilometroko abiadura hartu zuen eta azaroaren 2an 156,3 kilometro ordukoa.



PERTSONAIA

Maite OTEIZA

Zinegotzi kargurako proposatua

Arrazoi pertsonalak tarteko Santi Esartek zinegotzi kargua utzi du eta Maite Oteiza proposatu da ordezkotza, Bilduko zerrendan hurrengoa. Gizarte zerbitzuez eta hezkuntzaz arduratuko da. Orain arte Maitane Maritorenaren hezkuntzako arduraduna eta orain euskara eta kulturaz arduratuko da; Garbiñe Elizegik gizarte zerbitzuen saila utzi eta Esartek zuen hiritzaintza eta sortuko den berdintasun saila hartuko ditu. Esartek zuen ogasun saila Florentino Goñik hartuko du.

edredoi fundak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
albornoak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

60
aniversario
Casa Cambra
Zure erosketarengatik
urteurrenako oparia

Edredoi fundak eta nordikoetan espezializatuak

BAZTAN

UDALA → INFORMAZIO BOLETINAK

Udal gaien inguruan boletinak kaleratu dituzte Udal Gobernuak eta UPNk

Etkez etxe banatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Udaleko hainbat gaien inguruan informazio boletinak kaleratu berri dituzte Udal Gobernuak (Bildu eta Ezkerra) eta UPNk eta etkez etxe banatzeari ekin diote.

«Kudeaketa garden-tasun osoz erakustea» da Udal Gobernuaren helburua eta argitaratu berri duen urriko alean, 2010eko kontuen laburpena egin dute, gastuak eta sarrerak xehetasunez azalduz. Horrez gain, Elizondoko plazako mobiliarioaz ere ari da, baita «aurreko Udal Gobernuaren Erregerena Mankomunitatearen diruarekin egindakoaz» ere.

Udal idazkariaren ordezkari posturako oposizio-lehiaketa geldiaraztearen arrazoiak ere aipatu dituzte. Udal arkitekto berria Cristina

Arregi dela ere azaldu du Udal Gobernuak, eta udaletik kanpoko aitzineko aholkularitza taldeak kostu handia eragiten zuela-eta, zerbitzua aldatu dela ere jakinarazi du. Iruñeko Biderka aholkularitza taldearekin urte bateko kontratua egin du Udalak.

Aroztegiako proiektuaren inguruan, berriz, txosten tekniko juridikoa eskatuta dela ageri da boletinean, eta horren berri herritarrei emanen zaiela baieztatu du Udal Gobernuak. Saihesbideari buruz eta Oharrizko harrobiarekin gertatu denaz ere mintzo dira Bildu eta Ezkerra.

Bilduk, bere aldetik, berripaper elektronikoa ere egin du eta hilabetero ateratu nahi du, nahiz eta, maiztasunean gorabehera egon daitezkeen adierazi duten. Hainbat gai lantzen ditu: Kintoko desafekzioaren gaia, aitzineko udal tal-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Elizondoko feria jendetsuak

Hainbat tokitatik etorritako jendea bildu zen urriaren 28an Elizondoko ferietan. Merkaturako plazak itxura ederra hartu zuen azienda aunitz bildu baitziren: ardiak, behiak, behorrak, zaldiak... Foruen Plaza, Jaime Urrutia, Axular eta Giltxaurdi karrikak, berriz, bertzelako aukerekin bete ziren eta jendearen erantzuna arras ona izan zen.

dearen dietak, Oharrizko harrobiarekin gertatu dena, Giltxaurdi Udal Kirol instalazioen harira azpiegitura publikoek kudeaketan publikoa izan dezaten egin duen apustua, Udal batzorde irekiak lanean ari direla, eta Elizondoko Datue aldeko proiektu urbanistikoaz ere mintzo da.

UPN-REN BOLETINA

UPNk, berriz, boletina argitaratuz, «Udalean gertatzen denaren berri unean unean» eman nahi du eta horrekin batera, herritarrak parte hartzeri ere gonbidatu ditu.

Alde batetik, Bildu eta Ezkerraren Udal Gobernuaren «100 eguneko kronika» egin du boletinean eta horren barne, Bildu eta Ezkerrari «jarrera antidemokratikoa» izatea leporatu die, eta «bere helburuetara egokitzen ez den erabakia desagitea» ere egotzi die, «kostuak eta ondorioak baloratu gabe».

Bertzelako gaien inguruan, Aroztegiako proiektua eta Arraioztik Elbetera doan saihasbidearena aipatu dituzte. Aroztegiako egitasmoari buruz, adibidez, «onura ekonomi-

ko, laneo eta turistikoak edukiko lituzkeen proiektuaren garapena oztopatzea» leporatu die UPNk.

Magnesitasi buruz ere ari dira UPNkoak boletinean, baita udal ordezkarien ordainsariez ere. Mozioa aurkeztu omen du oraingo udal ordezkariak ere ez dezaten 300 euro baino gehiagoko ordainsaria hartu.

Azkenik mutildantzen gaia ere ateratu du UPNk boletinean.

Xehetasun gehiago etkez etxe banatu duten boletinean hartuko dute baztandarrek.

LIZUN
GAZTANDEGIA

Suinbilla - Tel: 948 450 862

TTIPI-TTAPA: 2.000 zabalera eta 100 m altuera

proiektu zentralak

15.996

EZKONTZA ARABO ESKAINTZA BEREZIA

Andregaiaren erramua + elizako loreak + detaileak eginez gero: **KOTXEKO LOREAK OPARI**

NAIAGARTE: 1.948.581.853

Arregeria: 1.948.581.853

Arregeria: 1.948.581.853

ANTXITONEA

Arregeria: 1.948.581.853

Arregeria: 1.948.581.853

Arregeria: 1.948.581.853

KIROLA → BINAKA ESKU PILOTAN

Jolas Panamerikarretan azpitxapeldun izan dira Amaiurko Uharte anaiak

Finalean galdu
egin dute
mexikarren
kontra

TTIPI-TTAPA / M. OTEIZA

Tony eta Josetxo Uharte Amaiurko anaiak azpitxapeldun izan dira XVI. aldiz jokatu diren Jolas Panamerikarretan, bi-

nakako esku pilota modalitatean, hain zuzen. Mexikon jokatu zuten finala bi mexikarren kontra eta aitzinetik jokatu-tako partidetan nagusi-tu egin baziren ere, finalean ez zuten irabazterik izan. Amaiurren bizi dira biak, eta pilotarako afizio haundia dutenak dira, baina Kalifornian sortuak direnez, horrek



ARGAZKIA: ONDIKOL

Tony eta Josetxo Uharte amaiurtarrak zilarrezko domina eskuetan dutela.

eman zien aipatutako txapelketa horretan jokatuta eta zilarrezko domina etxerako aukera.

Iruritan gas naturala

Badirudi Repsolen garaiak pasatu direla, eta gas naturala etxeetarat ailegatzear dagoela. Baztanen, Gas Natural Fenosa enpresa etxez-etxe

dabil bere produktua saltzen eta Iruritan, adibidez, dagoeneko gasa sartzeko obrak hasi dira. Eskola berria egitean, Larnagatik beheiti sartu zen, eskolarako sartu behar zenaren aitzakia-ekin, baina gainerako herria gas naturalik gabe gelditu zen. Gaur egun, herri barrenean obretan

ari dira. Jauregizaharretik beheiti, Erreboteko plaza zeharkatu eta Gais-tenetik beheiti heldu da. Repsolek propanoa paratu zuenarik, ez zen etxe guztietarat ailegatu, herri kaskotik pixka bat baztertzen ziren etxeetarat ez zuten hurbildu. Orain, badirudi etxe guztietarat ailegatuko dela.

AZARDAK 12 SU TA GARERRUGABE
00:00 - 12€ Aurretik - 15€ Bertan
Salmenta puntuak: Antxitones eta Txokoto (Elizondo) - El Intermundo Garraf Shop (Iruña) - Atráspi (Lesaka)

AZARDAK 19 ESNE BELTZA
00:00 - 10€
Salmenta puntuak: Antxitones eta Txokoto (Elizondo) - El Intermundo Garraf Shop (Iruña) - Atráspi (Lesaka)

AZARDAK 26 LURDJOTAK
01:00 - 02:00: TITIKOTNIK
02:00etatik aurrera: 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

Lur
www.lurjotak.com

garagardategia
Ondorai, lehiaketa eta laguntza bereziki zuretzat
KARME GILAK TEL. 940.00.00.00

UDALA → 2010EKO KONTUAK

Herritar bakoitzeko 1.111 euroko zorra zuen Udalak 2010ean

ТТИПИ-ТТАРА

Gobernu organoko gastuetan 194.912 euro joan ziren (soldatak, dietak...) eta administrazio orokorrean 1,2 milioi euro. Bertze gastu apagarrienak hauek dira: udaltzaingoa 159.979 euro (soldata, aseguruia, arropa...); pentsio eta bertze prestazioetan 705.144 euro (Montepío eta Construcciones Torrecilla Gizarte Segurantzak), haur eskoletan 288.290 euro:

Transferentzia arruntetan (subentzioak, Montepio, transferentzia arrunten funts orokorraren zatia, Kintoko sarrera...) ia 3 milioi euro bildu ziren eta administrazio orokorraren transferentziekin (dirulaguntzak obrak egi-

ARGAZKIA: RAKEL GOÑI

Lakar familiaren lehenbiziko bilkura Arizkunen

Lakar familiako hainbat kide bildu ziren lehenbiziko aldiz urriaren 29an Arizkungo elkartearen. Doneztebe, Legasa, Iruñea, Donostia eta Baztandik etorritakoak. Aunizek bertan ikusi zuten elkar lehendabizikoz.



ARGAZKIA: ONDIKOI

Giro bikaina Kirikoketan Bestan

Kirikoketa bestaren hamabigarren edizioa ospatu zen urriaren 22an Arizkunen, Jo ala Jo Kultur taldeak antolatuta. Gamioxarreko dolarean gerora sagardoa bihurtu den sagarra jo zen, baina horren inguruan hainbat ospakizun egin ziren. Astotxobatek tiratutako organ Larrainkarrike bitarte ekarritako sagarra jo eta estutu ondotik, zukua dastatzeko aukera izan zen, muztio hori kupeleratu aitzin. Kirikoketa doinuak ere orduan aditu ziren eta Nafarroako sagardoak dastatu eta taloak eta qaztainak iateko aukera izan zen. Karriketan ere ez zen animaziorik falta izan.

teko...) 2,5 milioi euro. Ondare eta herri-ondasunen bidez 327.816 eu-

ro bildu zituen Udalak. Adostutako mailegua milioi batekoa zen eta Erre-

gerenatik 185.361 euro hartu ziren, nahiz eta hau itzuli egin beharko den.

[illegible]

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

KULTURA → AZAROAREN 26AN IZANEN DA

Salgai daude Landibarren eginen den VIII. Kantu Zaharren Egunerako txartelak

Peio bentako harategian edo Elizondoko Antxitonean eros daitezke

lak erosteko tokiak Dantxarineako Peio bentako harategia (948 599400 telefonoa), eta Elizondoko Antxitonea trinketea dira (948 581807 telefonoa).

Koro eta Margari


Bertze behin ere lehengo kantu xaharrekin gozatzeko aukera izanen da Landibarko Ugaraña jatetxean eginen den Kantu Zaharren Egunean. Aurtengoarekin zortzigarren aldiz eginen da eta aitzinekoetan bezala, Angel Mariezkurrenak antolatuta.

Azaroaren 26an izanen da, eta hilaren 5az geroztik salgai daude txartelak. 50 eurotan eskura daitezke eta 10 euro gehiago ordaindu beharko dira autobusa nahi izanez gero. Txarte-

Akelarre Elkartearen batzarra

Akelarre Elkarateak asanblada orokor batetara deitu ditu herritarak, azaroaren 25ean, 20:00etan eginen da bilkurara, hain zuzen. Batzordeko kideak aldakidura animatu dute. Alde berean, bilkuran jendearen iritziak ere bildu nahi dituzte.

Huni buruzko xehetasunak idatziz etxetarat igorriko dituzte luze gabe.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Sare sozialetan barrena

Nahiz eta negozio ttikia izan, gaur egun ez da nahikoa bakarrik web orria eta posta elektronikoa edukitzea. Facebook eta Twitter-en agertzea ere lagungarri izan daiteke. Hori dela eta, Zugarramurdiko Sorginen Museoak eta Cederna-Garalurrek *marketina eta gizarteko sareak* ikastaroa antolatu zuten. Urriaren 24 eta 25ean egin zen, eta bederatzi lagunek parte hartu zuten. Eztabaida eta hausnarketa polita sortu omen zen partehartzaileen artean: denek ados zeuden beharrezkoa dela gizarteko sareak zer diren eta nola erabili jakitea negozio batean pentsatuz, baina puntu bateraino, bertzela, teknologiaren menpe biziko ginatekeelako egun osoan. Gainera, Zugarramurdi eta Urdazubin Internetarako konexioak edo loturak oso motelak direnez, momentuz, zaila izanen da hau martxan jartzea. Ikastaroa museoko sabaian egin zen, eta Cedernako Pablo Rodriguezek, eman zituen klaseak.

ferreteria
Quevedo
TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 580 234 • Faxe: 948 581 210

SENPERE


KULTURA → AZAROAREN 5ETIK 20RA

Arte garaikidearen giroan murgilduko da herria Berinak II festibalaren karietarat

Hainbat erakusketa ikusten ahal dira herrian barna

Franck DOLOSOR

Polemika eta zer erran frango sortu zuen duela bi urte Berinak festibalak. Karioegia zela zioten batzuek. Senperen ez zela sekulan holakorik ikusi bertze batzuen ustez. Ideiak ez zuen nehor bazterrean utzi, denek zuten zer-bait errateko eta hori bera da Berinak festibalaren lehen hitzorduaren lehen arrakasta haundia. 2009ko udazkenean, saltegiatoko berinak apaindu zituzten Anne Marie Jeannou eta Iñaki Viquendiren gonbidatuek. Aurten ere, arte garaikideak toki zabala izanen du eta gainerat, musika, dantza eta bertsuak ere izanen dira. Berinak II festibala azaroaren 5ean hasi zen eta 20a arte iraunen du. Jaialdiaren idekitze egu-



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Artista andana elkartuko da Berinak II festibalaren karietarat.

nean, Elirale konpainiaren dantzaz eta Xabier Erkizia eta Kalakan taldearen musikaz gozatu ahal izan zen. Maialen Lujanbio bertsulari xapeldunaren ahotsa entzuteko parada ere izan zen.

Orain zonbait erakusketa preziatzen ahal da Senpereko hainbat tokitan. Jeanne Susplugas paristarrak bideoak, argazkiak eta marrazkiak nahasten ditu. Fes-

tibalaren karietarat, formaz alda daiteken egurrezko etxea eraiki du Viquendi zurgin senper-tarrarekin. Beren alde-tik, Patxi Laskarai eta Christian Borde Mous-

tic argazkilariek beren lanak erakusten dituzte. Lehenak estetismoa ainitz lantzen du eta Euskal Herria erakusten du nehork ez bezala ikuspegi harrigarriek esker.

Moustic-ek treina maiz hartzen du Euskal Herri-Pariserat joateko lan egiterat. Treinetik hartu dituen argazkiak erakusten ditu Senperen egin duen lehen ageraldian.

Ibai Hernandorena angeluarrak emozioak piztu nahi ditu errealitatearen perzeptzioa aldatuz. Aste bateko egonaldia egingen du Errota Berrian obra bat sortzeko. Horiek oro eta bertze artista frango elgarretaratuko da gure herrian Berinak II festibalaren karietarat eta ez da dudarik aurten ere zer errana sortuko duela Anne Marie Jeannou eta Iñaki Viquendi arte garaikide zale senper-tarrek elgarrekin apailatu duten biharko artearen hitzorduak.



KULTURA → LUR BERRI GELAN

Lau urte bitarteko neska-mutikoentzat ikusgarria eskainiko du Ramodal taldeak azaroaren 20an

Saio publiko horrez gain, eskoletako haurrentzako saio gehiago izanen dira

TTIPI-TTAPA

Ramodal konpaniak *Au bord de l'autre* izeneko ikusgarria aurkeztuko du azaroaren 20an Lur Berri gelan. 1 eta 4 urte bitarteko haurrei zuzendua da, haurtzaroko oroitzapenei lotua, hain zuzen eta 10:00etan eta 11:30ean izanen dira.

Tokiak erreserbatu behar dira Communauté des communes Sud Pays Basquera deituz (06.35.16.25.91). Xehetasun gehiagorentzat ondoko web orrian ere informazioa lor daiteke: www.kultura.ccspp.fr.

Azaroaren 20an, larunbata, eskainiko dena saio publikoa izanen da baina horrez gain, Haurtzaindegiko eta ama eskolako ttipientzat saio gehiago izanen dira azaroaren 21ean, 22an, 24an eta 25ean, denak ere Lur Berri gelan. 09:30ean, 11:00etan eta 15:00etan izanen dira.



ARGAZKIA: WWW.KULTURA.CCSPB.FR

Haurtzaroko oroitzapenei lotutako ikuskizuna eskainiko du Ramodal taldeak Lur Berri gelan.

Mus eta Poker zeingehiagoka

Azaroaren 26an eskola publikoak mus eta poker zeingehiagoka antolatu du, Omordiako jantoki gelan.

Izena emaitako Stéphaneri behar da deitu, eta azaroaren 24a da horretarako azken epea. Talde bakotxarentzat 10 euroko parte-hartzea galdetuko da. Bertan ostatu bat ere izanen da eta taloak eta ogitarteak salduko dira.

Pintxo aperitifa

Saraskatasuna elkar-teak azaroaren 20an, eguerdian, presoen alde aperitifa antolatu du. Aperitifa Herriko Etxeko arkupeen azpian egingen da, eta pintxoak eta edatekoak salduak izanen dira. Momentu goxo baten pasatzeko aukera izanen da, beti ere presoak gogoan atxikiz.

Kirol emaitzak

Joko polita erakutsi zuten urtxintxek Hendiaren kontra urriaren

22an, baina berdinketa batekin bukatu zuten, 21-21. Errugbilariek urriaren 28an Mendikotako taldea errezibitu zuten eta 13na egin zuten.

Santa Katalinaren besta

Azaroaren 27an, Santa Katalinaren besta izanen da. 10:30ean, Santa Katalinako kaperan meza emanen da. Eguerdi eta erditan ohi-turako tripotx jatea egingen da Ihalarreko Baratzartearen jatetxean.



SOULE
hileta artea
Tfnoa: 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN



CAFE DE LA MAIRIE
BARRIO DE LA MAIRIE
SARA

MONTXO OSTATU



Dantzarineatik 2 km-tara

ТАВЛКО-ДЕНДЛ
АНЗЛН-БОРДЛ • УРДАЗУВЛ
Егунен мекс 10:30etik 02:30era

Okindegia Jatetxea

Uxoa



OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitateak parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erreteko goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea
Tfnoa: 948 453 403
31713 ARIZKUN

EZKONTZAK

Jon Ugalde Salazar eta **Maria Fagoaga Leiza**, Azpeitikoa eta Arantzakoa, azaroaren 4an.

Joxemi Bengoetxea Lastiri eta **Es-ther Iriarte Yanci**, Urdazubikoa eta Nartartekoa, urriaren 8an Urdazubin.

Mikel Salaberri Elizetxe eta **Amaia Altube Arrastio**, Doneztebekoa eta Amurriokoa, urriaren 1ean, Donezteben.

Jose Antonio Vargas Ponbar eta **Bri-tta Tanja Burgass**, Bartzelonakoa eta Alemaniakoa, urriaren 21ean Lesakan.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Lukas Ezkurra Arretxea, Doneztebekoa, irailaren 18an.

Manex Lasarte Astibia, Leitzakoa, urriaren 16an.

Aiert Zelaieta Azkarate, Anizkoa, urriaren 27an.

Jare Ibarra Taberna, Goizuetakoa, urriaren 27an.

Hegoa Iratzoki Urtxegi, Sunbillakoa, urriaren 22an.

Izaro Zelaieta Egia, Lesakakoa, urriaren 8an.

Maddi Otheguy Rementegi, Urdazubikoa, urriaren 21ean.

Ariane Goikoetxea Mitxelena, Berakoa, urriaren 24an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Jeanne Hauciarce, Sarakoa, urriaren 10ean, 98 urte.

M^a Rosario Uria Goizueta, Goizuetakoa, azaroaren 1ean, 65 urte.

Santos Martin Tirado, Nartartekoa, urriaren 20an, 80 urte.

Manuel Etxabe Magirena, Elizondokoa, urriaren 24an, 80 urte.

Julia Maizterrena Legarraga, Elizondokoa, urriaren 24an, 96 urte.

Migel Joakin Sagastibeltza Sagastibeltza, Leitzakoa, urriaren 24an, 51 urte.

Francisca Etxeberria Gastearena, Zubietakoa, urriaren 26an, 88 urte.

Migel Antonio Sagastibeltza Zabaleta, Leitzakoa, urriaren 28an, 88 urte.

Inaxio Gaztañaga Sagastibeltza, Leitzakoa, urriaren 26an, 95 urte.

Maria Rosario Telletxea Babaze, Oizkoa, urriaren 30ean, 73 urte.

Ines Ibarra Bertiz, Sunbillakoa, urriaren 31n, 91 urte.

Fidel Maia Elizaintzin, Lesakakoa, urriaren 30ean, 81 urte.

Luis Lakar Juan, Lesakakoa, azaroaren 1ean, 72 urte.

Amadeo Arretxea Migelena, Igantzikoa, azaroaren 2an, 65 urte.



Jose Angel 'KOTTO' ALTZUGUREN PERURENA

Beran, 1966-III-03/Sorian, 2005-X-31

VI. URTEURRENA

Eman zenuen bizia euskaragatik, herriarengatik, Euskal Herriagatik, eta azken bederatzi hilabeteetan familia eta lagunei eman zenien bizia, joan arte.

ETXEKOAK



Severiana SARRATEA MITXELTORENA

Beran, 2011ko urriaren 19an

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzuen guziei, mila esker etxeko eta senideen partetik.

ZURE FAMILIA

*Rekordatorioak
egiten ditugu*

ttipi-ttapa

Andelata, 12
ITXALAR | 948635458

LASTERKETA → GURE TXOKOA ELKARTEAK ANTOLATUTA

Dabid Garcia Gil durangarrak irabazi du Lizuniagako Igoera

Emakumeetan Maika Ariztegi izan da bizkorrena

TTIPI-TTAPA | BERA

Urriaren 22an jokatu zen Gure Txokoa elkarteak antolatutako Lizuniagako Igoeraren XXXI. edizioa. Aurtan, berrikuntza gisa, denborak txiparekin hartu ziren. Gainerakoan, betiko ibilbidea izan zuten korrikalariak, 4,9 kilometrokoa Eztegarra eta Lizuniaga artean.

Denetara, 103 korrikalariak irabazi zuten.

16 minutu eta 3 segundoko denbora hobetzen zuenarentzat 300 euroko saria jarria zuten antolatzaileek, baina inor ez zen hurbildu errekorra. Bizkorrena Durangoko Dabid Garcia Gil izan zen (17:26). Bigarren postua Alkotzeko Mikel Beunzarentzat izan zen (17:34) eta Irungo Josu Arburuak osatu zuen podiuma (17:35). Laugarren postua Berako Fernando Etxegarairentzat izan zen (17:45).



ARGAZKIA: JOSEMARI TELLETXEA

103 korrikalariak Eztegarako irteeran.

DATUA

23

EMAKUMEZKO
helmugaratu ziren
Lizuniagan. Horieta
aunitz eskualdekoak.

Eskualdeko gainerako kirolariei dagokienez, Angel Garate iruritarra hamekagarren izan zen (19:20) eta beterano mailako hirugarren postua lortu zuen. Berako Angel-

txo Aranibar hamahirugarren izan zen (19:42), Iñaki Pikabea hamalagarren (19:48), Juan Luis Irazoki hamabosgarren (19:49). Narteko Fermintxo Oteiza hamazazpigarren (20:01) eta Berako Guillermo Perugorria hemezortzigarren (20:11). Gazteetan, Beñat Mitxelena beratarra izan zen bizkorrena (21:07) eta 24. izan zen sailkapen orokorrean.

Emakumezkoen artean, Maika Ariztegi iturndarra berriz ere garaile atera zen (22:14). Biga-

rren postua Marisol Martinez irundarrak eskuratu zuen (23:49) eta hirugarrena Irene Almandoz beratarra (25:44). Aipatzekoa da, emakumezkoen parte-hartzea, 23 helmugaratu baitziren.

Leire Telletxea beratarra seigarren izan zen (27:44), Irene Matxiarena beratarra zazpigarren (27:57), Garbiñe Iguaran beratarra zortzigarren (27:59), Oihana Almandoz lesakarra bederatzigarren (28:02) eta Lourdes Alunda arraioztarra hamargarren (28:47).

SOKATIRA → GOMA GAINEAN

Larunbat honetan abiatuko da Nafarroako Sokatira Txapelketa

Gizonezkoetan eta mistoetan lau talde atera ditu Amaiurrek

TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan, azaroak 12, emanen zaio hasiera Nafarroako Goma Gaineko Sokatira Txapelketari.

Gizonezkoak zortziko txapelketan ariko dira eta bi kategoriatan

lehiatuko dira: 640 kilokoan eta 600 kilokoan. Lehenbiziko multzoan talde bakarra aurkeztu du Amaiurrek eta bigarrenean, berriz, bi: Amaiur A eta Amaiur B.

Talde mistoetan, seiko taldeak izanen dira eta 420 kilokoan ariko dira. Hemen ere talde bat aurkeztu du Amaiurrek. Emakumezkoetan seiko taldeak izanen dira, 390 kiloko lehian ariko dira baina hemen ez



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Amaiurko mutilak lanean.

da eskualdeko ordezkari izanen.

Guztira lau jardunaldi jokatu dira. Lehenbizikoa larunbat honetan jokatu da. 640 eta 420 kiloko lehenezko jardunaldiak izanen dira. Azaroaren 19an 640 eta 420 kilokoan

bigarren eta azken jardunaldiak jokatu dira; azaroaren 27an 600 eta 390 kiloko lehenezko jardunaldiak jokatu dira Berriozarren eta abenduaren 3an, azkenik, 600 eta 390 kilokoan bigarren eta azken jardunaldiak jo-

katuko dira. Horrela emanen zaio bukaera goma gaineko aurtengo sokatira txapelketari.

Amaiurko taldeekin batera, Berriozar, Txantrea, Basaburua-Imotz eta Sakana dira txapelketan parte hartuko dutenak.

ESKUBALOIA

'Etxeko' ligara bueltatu eta aro berri bati ekin dio Baztango Kirol Taldeak

Maila galdu ondotik, eskubaloari segida emateko lanean ari dira denboraldi honetan

Baztango Kirol Taldeak aro berri bati ekin dio denboraldi honetan eta Julian Baldanta, lehen taldeko entrenatzaileak aipatu digunez, «taldearen eta Baztango eskubaloaren bizi-raupena jokoan zegoelako abiatu gara, trantsizio garaia dela erraten ahal dugu». Izan ere, azken denboraldietan estatuko zilarrezko mailan lehiatu ondotik, berriz ere 'etxeko' ligan lehiatzera bueltatu dira, Nafarroako 1. mailan. Talde nagusia ere kasik berriatik osatu behar izan dute, jokalariek batek izan ezik, gainerako guztiak utzi egin dutelako. «Lehen taldea eta jubenilen taldea batez ere za-

lantzatan zeuden, baina lortu dugu biak kantxaratzea eta ez da guti», aipatu digu talde nagusiaren ardura bigarren hartu duen Baldantak. Beraz, aurtengo helburu nagusia taldea bera kantxaratzea izan da eta sailkapenari dagokionez, «hirugarren posturako» lehiatzen izan daitezkeela uste du. «Egia da jokalariek guti ditugula lehen taldean, hamabi, eta batek min hartzen duenean edo ezin duenean, estu xamar jotaten garela partidetara, 7 jokalarirekin akaso, baina hori da aurtengo katzen dena». Gan den urtean, Kanarietara, Valentziara eta urruneko bertzte ateraldietara ere

joan behar izaten zuten jokalariek eta alde horretatik «erosoagoa» izaten dela aurtengoa onartu du Baldantak. «Hura polita zen, baina sakrifizio handia eskatzen zuen, asteburua bidaietan joaten baitzen».

Baldantak onartu digunez, «ez litzateke egiazko helburua halako postuarengatik borrokatuko dugula erranen bagenu, ez kalitatek ez dagoelako, jende kopuru aldetik guti garelako baizik. Beraz, lehen taldearen helburua baino gehiago klubaren helburua da eskubaloian aritzen diren neskei segida ematea eta behin jubeniletatik pasatuta, ez dezatela

BAZTAN BKT: 1. MAILA NAZIONALA	
Naiara OTEIZA RAZKIN	ORONZO
Amaia MORTALENA MASKOTENA	ELIZONDO
Aitziber ARREGI MAIORA	IRURITA
Agnieszka PATYEWICZ ETXEBERRIA	ANTSOAIN
Ainhoa IRAIZOZ CIRES	ELTZO
Garbiñe GOÑI ERROTABEREA	ELIZONDO
Izaskun AIZPURUA ETXEBERRIA	ELIZONDO
Maialen ARREGI TORRES	ELIZONDO
Maria IRAIZOZ CIRES	ELTZO
Nerea MORTALENA MASKOTENA	ARRAIOZ
Bidane APEZETXEA BERHO	ORONZO
Ana JAIMERENA AZKARRAGA	GARTZAIN
Entrenatzailea: Julian BALDANTA	ELIZONDO
Ofiziala: Idoia ARRUIZ BARRADO	ELIZONDO

kanpora atera beharrik izan eskubaloian jokatzeke edo bertzerik gabe, ez dezaten eskubaloia utzi».

Aurtengo kasik desgertu egin dira bi talde nagusi horiek, baina maila ttikiagoetan bada

eskubaloian aritzen den neskari. «Denera 112 jokalariek ditugu eta horietatik 12 bertzerik ez dira lehen taldekoak. Ea bultzada eman eta segida duen eskubaloiak Baztanen» aipatu digu entrenatzaileak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan Kirol Taldeko lehen taldea, guztiz eraberritu da denboraldi honetan.



LA BAZTANESA S.A.

Autobus Enpresa

Lineako autobus eta turismo
bidaiei zerbitzua

Santiago, 25 · ELIZONDO · 948 580 129

ESKUBALOIA

BAZTAN BKT: JUBENILAK

Ainara ONSALO DANBORIENA	ELIZONDO
Ainhoa ASTIZ GOÑI	LEKAROZ
Amaia ASIAIN ZELAIA	BERROETA
Amaia ASTIZ IZETA	ELIZONDO
Amaia BERTIZ GAZTELUMENDI	ELIZONDO
Ana MINDEGIA IRIBARREN	DONEZTEBE
Ane BALLARENA AÑORGA	ELIZONDO
Emma BERTIZ AYUSO	ELIZONDO
Idoia GARMENDIA ZUBIKOA	ELIZONDO
Intza GARTXITORENA URDANPILLETA	BERROETA
Ione KAMINO ELIZAGOIEN	ELIZONDO
Izargi ZUMARRAGA ETXANDI	ELIZONDO
Maitane BARBERENA GORTARI	ELIZONDO
Miren ARREGI MORTALENA	ELIZONDO
Nerea ETXEBERRIA OSKARIZ	ELIZONDO
Nagore IRIGOIEN IBARRA	ELIZONDO
Leire PACHECO DOZAGARAT	ELIZONDO
Uhaina APEZETXEA MURUA	ERRATZU
Entr.: Enrique PETRIRENA BAQUERO	ELIZONDO
Ofiziala: Jose Luis RUIZ MENDIBURU	ELIZONDO



UTZITAKO ARGAZKIA

Jubenil mailako neskek talde nagusia osatuko dute etorkizunean.

BAZTAN BKT: KADETEAK

Amaia LOIARTE LOPEZ	ELIZONDO
Andrea LIZASOAIN UTERGA	ELIZONDO
Ane JAEN PEREZ	ELBETE
Haizea MEOKI MARTINEZ DE ICAYA	ELIZONDO
Itsaso IRIARTE ELIZAGOIEN	ELIZONDO
Jone MITXELENA LAURNAGARAI	ELIZONDO
Leire ONSALO DANBORIENA	ELIZONDO
Jone URIARTE JAIMERENA	ERRATZU
Leire ORGANBIDE ELIZAGOIEN	ARRAIOZ
Lorea GOIENETXE LIZARTZA	ARIZKUN
Maialen GOÑI IRIBARREN	ELIZONDO
Maria URRUTIA KARRIKABURU	ELIZONDO
Olaia ITURBIDE BARANDIARAN	ELIZONDO
Nekane ASTIZ GOÑI	LEKAROZ
Maite ARREGI ARRETXEA	ORONoz
Vanesa QUINTANILLA IPARRAGIRRE	ELIZONDO
Stella IANTZI VICENTE	ELIZONDO
Sara DORREGARAI OIARREGI	IRURITA
Elena ZABALA EZKURRA	DONEZTEBE
Maidor OMAR PORROY	DONEZTEBE
Adriana MITXEO ZOZAIA	DONEZTEBE
Olatz MARTIN ARREGI	DONEZTEBE
Ent.: Rafa MITXELENA MARITORENA	ELIZONDO
Ofiziala: Enrique PETRIRENA BAQUERO	ELIZONDO



UTZITAKO ARGAZKIA

Kadete mailako neskek ere gogoz ari dira lanean.

PRIM, c.b. Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masajeak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

ESKUBALOIA

BAZTAN BKT: INFANTIL

Lierni OTEIZA MIGELTORENA	ORONoz
Garazi INZIARTE ARIZTEGI	ORONoz
Aintzane ARIZTEGI BARRENETXE	LEKARoz
Ane GARMENDIA ZUBIKOA	ELIZONDO
Saioa SANZ AZPIROZ	ELIZONDO
Ane FAGOAGA IZQUIERDO	ERRATZU
Itxaso URRUTIA MITXELENA	ELIZONDO
Uxue MUGIRO LARREGI	ARIZKUN
Laura BIKONDO ELIZALDE	IRURITA
Naiara MARTIN SERRANO	ELIZONDO
Blessing LUCKY AJAYI	ELIZONDO
Garazi SAGASETA URRUTIA	IRURITA
Ainhoa ELIZAGOIEN VARELA	ORONoz
Nerea ARRAZTOA ALEMAN	IRURITA
Izaskun ALMANDOZ ELIZALDE	LEKARoz
Jone LARRALDE CORDOBA	ELIZONDO
Ane ETXABE AIZPURUA	ELIZONDO
Ent.: Izaskun AIZPURUA ETXEBERRIA	ELIZONDO

BAZTAN BKT: ALEBIN

Paula URRUTIA GOIENETXE	ELBETE
Irene MITXELENA LAURNAGARAI	ELIZONDO
Maite SOBRINO ETULAIN	ARIZKUN
Maider ALTxu AIZPURU	ORONoz
Naroa BERRO SANTOS	ORONoz
Goiatz KARRIKABURU MITXEO	ARRAIOZ
Isabel BAILON ITURRALDE	ELIZONDO
Ainara ETXEBERRIA GOÑI	ELIZONDO
Sarai MARITORENA ETXENIKE	BERROETA
Itxaso ITURREGI ZELAETA	ELBETE
Ane KARRIBAKURU REKARTE	ARIZKUN
Aurkene PERURENA AGIRRE	IRURITA
Miren ZUBIKOA ERASO	ELIZONDO
Saioa IGOA ARRIETA	ZIGA
Ane BERRO MIGELENA	ORONoz
Oihane IRIARTE ELIZAINZIN	ARIZKUN
Leire MUGIRO LARREGI	ARIZKUN
Aroa URTEAGA AMIANO	ELIZONDO
Miren GONZALEZ GALARREGI	ELIZONDO
Maialen ANSO DENDARIETA	ELIZONDO
Olaia ZALDAIN ALTZUGUREN	ELIZONDO
Joanes ALTxu URTASUN	ORONoz
Luxia TRANTXE URTASUN	ELIZONDO
Eider ELIZAINZIN IRUNGARAI	GARTZAIN
Malen ALTZUART ARANBURU	ERRATZU
Mariana SALVADO JUSTINO	ELIZONDO
Loli JIMENEZ	ELIZONDO
Dunia LARA	ELIZONDO
Entrenatzailea: Ainhoa ASTIZ GOÑI	LEKARoz
Entrenatzailea: Amaia ASTIZ IZETA	ELIZONDO

BAZTAN BKT: BENJAMIN

Maitane GOÑI MATEO	ELIZONDO
Jone OTEIZA ALTZUGUREN	ELIZONDO
Ellena URRUTIA GOIENETXE	ELBETE
Olaia ONSALO DANBORIENA	ELIZONDO
Leire REKALDE LAZARO	ELIZONDO
Ana QUEVEDO ZIAURRIZ	ELIZONDO
Maialen ITURBIDE LAZARO	ELIZONDO
